



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA

JUNIOR ENPRESAK

UPV/EHU_n

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Donostiako atala

GRADU AMAIERAKO LANA

Ikaslea: Olatz Zabala Narbarte

Tutorea: Itziar Azkue

2016 Urtea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. JUNIOR ENPRESEN TESTUINGURUA	2
2.1 ZER DA JUNIOR ENPRESA BAT	2
2.2 IKUSPEGI EZBERDINAK	3
2.2.1. Lehenengo ikuspegia	3
2.2.2 Bigarren ikuspegia	6
2.3 JUNIOR ENPRESAREN ERAKETA ETA ERREGISTROA.....	6
2.3.1 UPV/EHUko Junior Enpresen Erregistroa.....	8
2.4 JUNIOR ENPRESAREN FUNTZIONAMENDUA.....	10
2.5 JUNIOR ENPRESAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK.....	11
2.6 JUNIOR ENPRESAREN ABANTAILA ETA DESABANTAILAK.....	11
2.6.1 Abantailak.....	11
2.6.2 Desabantailak	14
3. UPV/EHUⁿ ERATUTA DAUDEN JUNIORRAK.....	15
3.1 BIZKAIKO CAMPUSA	16
3.1.1 Bindigo	16
3.1.2 Komorebi	17
3.1.3 Ikastravelling.....	19
3.2 GIPUZKOAKO CAMPUSA.....	20
3.2.1 Magna SIS	20
3.2.2 Dinitek.....	22
3.2.3 Fabrica-T	23
4. GIPUZKOAKO CAMPUSEAN SAKONDUZ: MAGNA SIS	24
4.1 TALDEKIDEAK.....	24
4.2 ESKAINTZA	25
4.3 ANTOLAKETA	25
4.4 FAKULTATEAREN LAGUNTZA.....	26
4.5 E-MPRENDE SARIA.....	27
4.6 MAGNA SISeko BAZKIDE BEZALA ESPERIENTZIA.....	27
5. JUNE.....	28
5.1 SORRERA.....	28
5.2 ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA ANTOLAKETA.....	29

5.3 PROIEKTUAK	31
5.3.1 Nondik lortu proiektuak?	31
5.3.2 Parte hartzea	32
5.3.3 Egindako proiektuak	32
5.4 UNIBERTSITATEAREN LAGUNTZA.....	35
5.5 BAZKIDE OHIEN ESPERIENTZIA.....	36
5.5.1 Idazkaria 2009tik 2012ra: J. Merino	36
5.5.2 JUNEren eratzailleetako bat: E. Allur	37
5.5.3 Lehendakarietako bat: I. Lekue.....	37
5.6 AMIA DIAGNOSTIKOAREKIN KONPARAKETA	38
5.7 JUNEREN EGUNGO EGOERA.....	39
6. JUNEREN BIDERAGARRITASUN PLANA.....	39
6.1 EZINBESTEKO PUNTUAK.....	39
6.2 IDEIAK.....	41
7. ONDORIOAK	47
8. BIBLIOGRAFIA.....	50
ERANSKINAK	52

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Junior Enpresen ikuspegi ezberdinak	3
2. Irudia: Junior Enpresen EGITURA	4
3. Irudia: 1. Ikuspegiaren arabera Junior Enpresa eratzeko pausuak	7
4. Irudia: Europar Batzordeak egindako ikerketaren emaitza batzuk	13
5. Irudia: Amia diagnostikoa	15
6. Irudia: UPV/EHUn eratuta dauden Junior Enpresak	16
7. Irudia: Magna SIS enpresaren osaera	24
8. Irudia: Magna SIS kideen esperientzia	28
9. Irudia: JUNE Junior Enpresaren Zuzendaritza Batzordea	30
10. Irudia: JUNERen antolaketa	31
11. Irudia: JUNEk gauzatutako proiektuen taldekatzea	33
12. Irudia: Junior Enpresen amia eta JUNeko esperientziaren konparaketa	38
13. Irudia: Bideragarritasun planaren eskema	46

1. SARRERA

Gradu Amaierako lan hau Junior Enpresen ingurukoa da, eta ondorengo lau **helburuak** ditu: Junior Enpresen testuingurua ezagutzera, UPV/EHUn eratuta dauden Juniorrak ikertzea, Gipuzkoako Campuseko Junior Enpresa batean azterketa sakontzea, eta JUNE Junior Enpresa abiarazteko bideragarritasun plan bat aurkeztea.

Egiturari dagokionez, helburu hauetan oinarrituz egin dut lanaren banaketa. Lehenengo zatian, Junior Enpresen testuingurua azaldu dut (kontzeptua, ikuspegiak, eratzeko modua, abantailak...). Bigarren zatian, UPV/EHUko campus bakoitzean eratuta dauden Junior Enpresak aipatu eta bakoitzaren laburpentxoak egin dut; ondorengo atalean, aipatutakoetatik Gipuzkoako Campuseko Junior baten jardueran eta esperientzian zentratuz. Azkeneko atala, berriz, JUNEri zuzendu diot: puntu batean elkarrearen bilakaera azaldu dut, egindako proiektuetan eta bazkide ohien esperientzian oinarrituz; eta hurrengo puntuan, elkarte abiarazteko proposamena luzatu dut. Lanari amaiera emateko, azaldutako guztia kontutan hartuz ondorioak atera ditut eta erabilitako bibliografia aipatu, jarraian eranskin batzuk gehituz.

Finkatutako helburuak lortzeko erabili dudako **metodologia** hurrengoa izan da: alde batetik, Junior Enpresei buruz ahalik eta informazio gehiena internet bidezko bilaketa bibliografikoa eginaz saiatu naiz lortzen, batez ere, webguneak eta talde batzuek egindako lanak erabili baitituz. Eta bestetik, informazio zehatzagoa batzeko elkarrizketa elektronikoak eta pertsonalak burutu ditut, aurretik prestatutako gidoiekin lagunduz. Hortaz, webguneak eta elkarrizketak izan dira lana egiteko erabilitako ezinbesteko baliabideak, informazio ia guztia bide hauek erabiliz lortu baitituz.

Junior Enpresak mundu guztian zabaldua daude, eta martxan jarraitzen ez duen arren, gure fakultatean ere bat bada; horregatik, irakaslea aurreratu zen gai hau lantzeko proposamenarekin. Ez nuen honen berririk, horregatik informazio pixka bat lortzen saiatu nintzen lehenik. Gaiak interesa sortu zidanez, baiezkoa eman nion irakasleari, baina hala ere, interesgarria iruditzea ez zen aukeraketa egiteko arrazoi bakarra izan. Izan ere, lana egiteko orduan malgutasunez jokatzeko aukera izango nuela aurreikusitua nuen, hots, egitura finkorik ez duen lana izanik, interesa pizten zidan bidea jarraitzeko aukera emango zidala. Nahiz eta, JUNEri proposamena luzatzearen ideiak urduritasun puntu bat sortu, irudimena lantzeko aukera ona iruditu zitzaidan.

Lanarekin otsaila amaieran hasi nintzen eta uztaila hasieran bukatu, tarte honetan zailtasun batzuekin topatu naizelarik: batetik, Junior Enpresen informazio orokorra bilatzerakoan, hauen inguruko lan asko ez baitaude; eta bestetik, UPV/EHUn eratuta dauden Juniorren berri izaterakoan. Hortaz, orokorrean informazioa bilatzerakoan aurkitu ditut oztopoak. Gainerakoan ongi moldatu naiz, elkarrizketek informazio asko lortzeko aukera eman baitidate, eta gaineratu, harremanetan jarri naizen pertsonen gehiengo handi bat egon dela prest laguntzeko.

2. JUNIOR ENPRESEN TESTUINGURUA

2.1 ZER DA JUNIOR ENPRESA BAT

Junior Enpresa unibertsitateko ikasleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarte da. Unibertsitateko ikasleen prestakuntza hobetzeko asmoarekin sortua izan zen, hau da, ikasketetan lortutako ezagutza teoriko hori praktikan jartzea du helburu, baita unibertsitatea eta benetako enpresa-munduaren artean hurbilketa sendoago bat ematea ere.

Junior enpresek Frantzian dute jatorria, Parisen hain zuzen ere, bertan eratu baitzen lehenengo Juniorra 1967an, unibertsitateko ikasleek unibertsitatean lortutako ezagutza teorikoak praktikan jartzeko eta aldi berean, lan mundua ezagutzen joateko helburuarekin. Mugimendu honek jarraipena izan zuen, denborarekin indarra hartzen joan baitzen Espainiako eskola eta unibertsitateetan, eta gaur egun mundu guztian dago hedatuta.

Elkarte hauek ohiko enpresentzat egiten dute lan, publiko nahiz pribatuentzat zerbitzuak emanaz. Burutzen dituzten lanak kontratu bidezkoak izango dira, eta gainera, Juniorra kokaturiko unibertsitatean ematen diren karrerekin erlazionatuta egon behar dute.

Unibertsitate barruan kokatzen direnez honen babesa daukate, hala nola, bertako irakasleen eskutik aholkularitza eta orientazioa jasotzeko. Behar bezala lan egin ahal izateko, unibertsitateak oinarrizko azpiegiturak hornitu beharko dizkie: lokala, ordenagailu bat eta liburutegira sarrera, adibidez. Horretaz gain, zenbait kasutan enpresak sortzeko programen laguntza jasotzeko aukera ere badute; adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan campus bakoitzean programa ezberdin bat dago.¹

Aurretik esan bezala unibertsitateko ikasleek osatutako elkarteak dira Junior Enpresak, hau da, ikasleek sortu eta kudeatzen dituzte; horregatik ikasleek unibertsitatearekin duten lotura amaitu ondoren bertako partaide izateari uzten diote. (Federacion de Junior Empresas del Sur – FJESUR, 2013).


Legeari dagokionez, ez dago Junior Enpresa beste elkarteetatik ezberdinduko duen araudirik. Horregatik, Espainian elkarte baten oinarrizko araudia ondorengoa denez, hau aplikatzen zaio: Ley 191/64, de 24 de diciembre, de Asociaciones. (Basquelaw Abogados, 2016).

¹ Arabako campusa: INIZIA enpresa-mintegia
Bizkaiko campusa: ZITEK ekintzaileak programa
Gipuzkoako campusa: ENTREPENARI programa
<http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/enpresen-sorkuntza>

2.2 IKUSPEGI EZBERDINAK

Informazioa biltzeko ate ezberdinak jo ondoren, Junior Enpresen inguruan bi ikuspegi ezberdin daudela sumatu dut: lehenengoa marka nazionalarekin dago lotua, eta bigarrena Ikasle Elkarte soilekin. Jarraian bide bakoitza sakonago azalduko dut:

1. *Irudia: Junior Enpresen ikuspegi ezberdinak*



Iturria: norberak egina

2.2.1. Lehenengo ikuspegia

Ikuspuntu hau dutenek, taldekatutako egitura baten barnean ikusten dute beraien elkarte, ondorengo moduan antolatzen delarik:

Junior Enpresen mugimendua 1986an iritsi zen Espainiara, jarraian Junior Enpresen Konfederazioa Espainiarra (Confederación Española de Junior Empresas, aurrerantzean CEJE) sortuz, non honek ikasle unibertsitarioen elkarteak biltzen dituen. CEJEn jarduera nagusia Junior Enpresen mugimendu nazionala ordezkatzea, indartzea, bultzatzea eta zabaltzea da.

CEJEn errepresentazio nazionala dagokion moduan, autonomia erkidego berdineko Juniorrek beraien federazioak osatzen dituzte, zehazki, Junior Enpresen eskualdeko Federazioak, eta gaur egun lau daude:

- Junior Enpresen Euskal Federazioa (Federación Vasca de Junior Empresas, aurrerantzean FVJE).
- Junior Enpresen Valentziar Federazioa (Federación Valenciana de Junior Empresas, aurrerantzean FEVAJE).
- Murtzia Eskualdeko Junior Enpresen Federazioa (Federación de Junior Empresas de la Región de Murcia, aurrerantzean FEJERM).

- Hegoaldeko Junior Enpresen Federazioa (Federación de Junior Empresas del Sur, aurrerantzean FJESUR). (www.ceje.org).

Europa mailan, berriz, 1992 urtetik Junior Enpresen Konfederazio Europarra (Confederación Europea de Junior Empresas, aurrerantzean JADE) dago. (Basquelaw Abogados, 2016).

Beraz, urteen poderioz mugimenduaren barnean talde ezberdinak sortzen joan dira, eta ondorengo irudian garbi ikus daitekeenez modu hierarkizatu batean antolatuta daude.

2. Irudia: Junior Enpresen EGITURA



Iturria: norberak egina

Konfederazio hauetako partaide izateko hierarkia hori errespetatu beharko da, geziek adierazten duten moduan behetik gorako pausuak emanaz: Junior Enpresa lehenengo Autonomia Erkidego mailan dagokion Federazioko kide egin beharko da, honela CEJEko partaide izateko aukera izanaz; eta behin Espainiar Konfederazioko kide eginda, JADEko parte izateko aukera izango du, hau da, maila bakoitzean taldekide izatea ezinbestekoa da, hurrengo mailako taldekidea izateko. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Junior baten kasuan, lehenengo FVJEko partaide izan beharko da, CEJEkoa izateko; eta CEJEko partaide izan beharko da, JADEkoa izateko. Beraz, Junior bat ezin da CEJEn egon FVJEn egon gabe, ezta ere JADEn CEJEn egon gabe.

Lehenengo ikuspegi honetan elkartea egitura baten barnean kokatzeaz gain, marka bat bezala ikusten da: "Junior Enpresa" Patente eta Marken Erregistroan erregistratutako marka bat da, eta maila nazionalean federatu eta konfederatutakoek bakarrik erabili dezakete. Hau da, marka nazionala da, eta konfederaziotik ateratakoan marka hori

galdu egiten da elkarte soil bat bihurtuz. (I. Novo, komunikazio pertsonala, 2016ko maiatzak 22).

CEJE/FVJE eta hauen HAUSTURA:

Esan bezala Espainia mailan CEJE dago, eta Konfederazio hau Espainiako Junior ezberdinetako kideek osatzen dute, hau da, Donostia, Granada... toki ezberdinetako ordezkariak. Honek Junior Enpresek elkarren artean kolaboratzeko, lanak elkarbanatzeko eta laguntzeko balio du.

Konfederazioko partaide izateagatik, urtean gutxi gora behera 300 euroko kuota ordaindu behar da, eta CEJEk urtean 5-7 ekitalditara joatea derrigortzeaz gain, kuotaren truke aholkularitza ere eskaintzen du.

Autonomia Erkidego mailan aldiz, Federazio ezberdinak daude, eta FVJE da Euskal Autonomia Erkidegokoa. Talde hau Junior Enpresa ezberdinetako ordezkariak elkartuta osatzen da, eta honen helburua laguntza eskaintzea da. Federazioaren ideia Euskadiko Juniorren kopurua handitzea eta proiektuetan parte hartzea izan da.

Gaur egun Federazioa bost kidek osatzen dute, presidentea, presidenteordea, idazkaria, diruzaina eta bozeramaileak, hain justu ere. Urtean behin elkartzen jarraitzen dute derrigorrezko Batzarra ospatzeko, eta bertan Urteko Kontuak eta Aktak onartzeko; hala ere, hausnarketa momentu batean daudela esan daiteke, federazioan egin nahi dena ondo zehaztu gabe baitute. Hori dela eta, FVJEko kide izateagatik ordaindu behar den kuota ez zaie eskatu Junior Enpresei 2016an, aktibitatekin ez izatearekin gasturik ez baitute. Hala ere, kuotaren kantitatea denborarekin joan da murrizten, 2014an 200 eurokoa izan baitzen eta 2015ean 150 eurokoa; 2016an Juniorrak kuotarik ez ordaintzera iritsi diren arte. (I. Gurrutxaga, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

Bigarren irudian ikusi daitekeen moduan, bi taldeak Junior Enpresaren egituran daude, maila ezberdinetan; zehatz-mehatz, FVJE CEJEren barnean. Baina iraganean haustura moduko bat eman zen, nahiz eta bi alderdiek ez zuten modu berdinean bizitu:

2014ko ekainean FVJE CEJEtik atera zen, batez ere, dirua eta denboragatik; hori da behintzat FVJE berak esaten duena. Izan ere, aipatu bezala CEJEn egoteagatik kuota batzuk ordaindu behar dira, eta une horretan Euskal Federazioa kuota horien truke jasotzen zituzten onurak baloratzen hasi zen. Nahiz eta CEJEk enpresa handiekin harremanetan jartzeko aukera eman, egunerokotasunean ematen zizkien abantailak ez zirela nahikoa uste zuten. Azkenean, FVJE osatzen zuten Junior Enpresa guztien artean CEJEtik ateratzea erabaki zuten, bertan egotea beharrezkoa ez zela gogoeta eginez. Erabakia bozketa bidez hartu zen, eta guztiek baiezkota bozkatu zuten, Esme Deusto Unibertsitateko Juniorra abstenitu zelarik. (I. Gurrutxaga, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5). Ondorioz, aurretik esandako guztiarekin lotuz, FVJEko Juniorrek marka nazionala galdu izan zuten, egitura hautsi eta Europa mailan elkarlanean aritzeko aukera galduz.

CEJEk dioenaren arabera berriz, Espainiar Konfederazioaren web orrialdeaz gain, Elkarteen Erregistro Nazionalan konprobatu daitekeen moduan, FVJEk ez zuen CEJE utzi; baizik eta, kideen iritziz, Konfederazioaz jakin nahi ez zuten ikasleak sartu ziren eta daude Federazioan. (I. Novo, komunikazio pertsonala, 2016ko maiatzak 22).

2.2.2 Bigarren ikuspegia

Ikuspuntu hau dutenek Junior Enpresa ez dute egitura batekin lotzen, ezta marka nazionalarekin ere. Besterik gabe, hauentzat Junior Enpresa zerbitzu bat emateko Ikasle Elkartea da. “Junior Enpresa” izena erabiltzen dute beraien elkarteari erreferentzia egiterakoan, nahiz eta maila nazionalan federatuta ez egon. Hauek irabazi asmorik gabeko elkartea direla azpimarratzen dute, eta “Junior Enpresa” beraien jartzen dioten izena dela.

Guztiak Unibertsitate Elkartea dira noski, baina sare horretatik kanpo egonik Junior Enpresa deitura emanda ere, sare bateko kide izateagatik jasotzen diren aukerak galtzen dituzte, adibidez, nazioartekotzeko aukera (multinazionalak bazkide izatea), auditoria eta informe teknikoak kalitatea hobetzeko, deskontuak kideekin... (I. Novo, komunikazio pertsonala, 2016ko maiatzak 22).


Hortaz, aurretik azaldutako hausturarekin lotuz, FVJEk CEJEtik “ateratzea” erabaki ondoren, esan dezakegu bigarren ikuspegi hau jarraitzearen aldeko apustua egin zuela. Hau da, Junior Enpresa deitura erabiltzen jarraitu arren, Juniorren egitura horretatik kanpo beraien bidea segitzea. Hauxe izan zen FVJE osatzen duten Juniorren erabakia, eta aurrerago UPV/EHUn eratuta dauden Junior Enpresak aztertzerakoan, Bizkaiko Campusean eratuta dauden Juniorrek ere ikuspegi hau jarraitzen dutela ikusiko dugu. Hortaz, bigarren hau etorkizuna duen ikuspegia dela esan daiteke.

2.3 JUNIOR ENPRESAREN ERAKETA ETA ERREGISTROA

Junior Enpresa bat elkarre bat denez, hau eratzeke eman beharreko pausuak elkarre bat sortzeke eman beharreko berdinak dira. Baina bi ikuspuntu daudenez, Juniorra eratzeke modua ere zertxobait ezberdina da.

Lehenengo ikuspegiari dagokionez, ondorengo irudian laburbiltzen dira pausuak:

3. Irudia: 1. Ikuspegiaren arabera Junior Empresa bat eratzeko pausuak



Iturria: (Federacion de Junior Empresas del Sur –FJESUR, 2013)

Gazte Elkartea (asociacion juvenil) Eraketa Aktaren bidez eratzen da, gutxienez hiru pertsonako akordio boluntarioa izanik. Pertsona hauei bazkide eratzaille deitzen zaie, eta beraiek arduratuko dira kudeaketa-batzordea izendatzeaz, baita Junior Enpresaren Estatutuak onartzeaz ere, non azken honetan zehaztuko den beraien helburua. Estatutuetan ondorengo puntu hauek ere barneratu beharko dira:

- Deitura
- Helburuak
- Egoitza nagusia eta beste lokalen egoitza
- Jardungo den lurraldea
- Zuzendaritza organoak eta administrazio modua
- Bazkide izateko edo bazkide izateari uzteko prozedura
- Bazkideen eskubide eta betebeharrak

- Sorrerako ondarea eta aurrekontu erregimena
- Elkartea banatzea eta ondare soziala aplikatzea

Jardungo duen lurralde-eremua edozein dela ere, helbideratutako Probintziako Erregistroan inskribatu beharko da, baita Barne Ministerioko Nazioarteko Erregistroan ere. Bi Erregistroetan Elkartearen eraketa, hau da, Eraketa Akta eta Estatutuak depositatu beharko dira; halaber, Estatutuen aldaketak, erabilera publikorako deklarazioa, eta gertatuz gero, Elkartearen banatzea. (ORMA, 2012).

Behin Elkartea sortuta, beste edozein elkartetan bezala, Identifikazio Fiskaleko Kodearen eskaera egin beharko da eta elkartea titularra den banku kontua ireki. Ondoren, Unibertsitateko elkartegintzan erregistratu behar da Unibertsitate Elkarte bihurtuz (adibidez UPV/EHUko erregistroan); eta Junior Enpresa izateko aholkuak eskatu ostean pre-aspirante izango da.

Hurrengo pausua, bakoitzari dagokion eskualdeko Federazioko kide izateko eskaera egitea da; hauek ezarritako baldintzak bete eta Batzarrean onartu ondoren Junior Enpresa Aspirantea bihurtuz. Sei hilabetez jardun ondoren, CEJEko kide izateko eskaera egingo da, hemen ere baldintzak bete eta Batzarrean onartzen bada Junior Enpresa izatera iritsiz. (Federacion de Junior Empresas del Sur – FJESUR, 2013).

Bigarrenko ikuspegiari dagokionez, elkartea Federazio eta Konfederaziotik at sortu nahi dutenek ere irudiko pausuak jarraitu beharko dituzte, baina azken hiru urratsak eman gabe. Nahiko da elkartea eratzea, eta elkarte guztietan egin behar den moduan, CIF eskaera eta banku kontua irekitzea. (J. Gorostiaga, komunikazio elektronikoa, 2016ko maiatzak 26).

2.3.1 UPV/EHUko Junior Enpresen Erregistroa

Euskal Herriko Unibertsitatean Junior Enpresa bat erregistratzeko, ondorengo bidea jarraitu beharko litzateke:

Lehenik eta behin, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Saileko Elkarteen Erregistroan inskribatzea. Bere web orrialdean xehetasun guztiekin azaltzen du egin beharreko tramiteak:

Hemen zaude: [Hasiara](#) / [Administrazio erregistroak](#)

Bilaketa-hitza

Bilatu Bilaketa aurreratua

- Aurkezpena
- Elkarteak
- Fundazioak
- Elkargo eta kontseiluak
- Proiektuak
- Ezagutza
- Galdera ohikoenak
- Albisteak

Eraketa

Elkarteak eratzeko, behin-betiko nahiz behin-behineko izaerarekin, hartarako erabakia hartu behar dute hiru pertsona fisikok edo gehiagok, edo hiru pertsona juridiko publiko edo pribatuk edo gehiagok; pertsona horiek konpromisoa hartuko dute legezko, guztientzako eta interes orokor nahiz partikularreko helburuak lortzeko asmoz ezaguerak, baliabideak eta jarduerak batera jartzeko, eta elkartearen estatutuak egingo dituzte haren funtzionamendua eta jarduna arautzeko.

Elkarte horiek nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango dute, eraketa-akta agiri publikoan edo pribatuan egilesten diren unetik bertatik.

Halaber, elkarte horiek Federazioa, Konfederazioa edo Elkarten Batasunak sortu ahal izango dituzte, eta Erregistroan inskribatu ahal izango dira.

Agiriak:

[Elkarte baten sorrera inskribatzeko aurkeztu behar diren agiriak. Estatutuak barne. \(RTF, 204 KB\)](#)

[Pertsona juridikoek aurkeztu behar dituzten dokumentuak. \(doc, 31 Kb\)](#)

[Gurasoen elkarteak aurkeztu behar dituzten dokumentuak. \(DOC, 206 KB\)](#)

[Eratutako federazio, konfederazio eta elkarte-batasunen eslatutu-eredua. \(DOC, 103 KB\)](#)

http://www.iusap.ejgv.euskadi.eus/r47-edukireg/eu/contenidos/informacion/ra_aso_constitucion/eu_registro/constitucion.html

Izan ere, jarduera eremua Euskal Autonomia Erkidegoa duten eta erregimen espezifiko ez duten elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan inskribatu behar dira. Horretarako, aurretik aipatu bezala, eskaera, eraketa akta eta estatutuak aurkeztu behar dira telematikoki edo bertara joanda.

Ondorengo pausua, interesatzen bada behintzat, UPV/EHUko Ikasleen Elkarten Erregistroan inskribatzea izango litzateke, hain zuzen ere, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzan. *(Ikusi 2. ERANSKINA)* Ikasleen Elkarteko aitortpena lortzeko hainbat baldintza bete behar dira eta informazio guztia Ikasle Kontseiluak publikatuta dauka ondorengo orrian:

UPV/EHU » Ikasle kontseilua » Elkarteak » Ikasleen elkarteak nola sortu

Ikasle kontseilua

- UPV/EHUko Ikasle Kontseilua
 - » Aurkezpena
 - » Barne antolakuntza
 - » Zer eskaintzen dizugun
 - » Akordioak
 - » Logotipoa
 - » Harremanetarako
- Ikasle ordezkaritza
 - » Ordezkaritzaren organigrama
 - » Ordezkareren gida
 - » Ikasle Kontseiluei dirulaguntza

Ikasleen elkarteak nola sortu

- Araudia
- UPV/EHUko erregistroan izena ematea
- Baldintzak
- Arautegi berrira egokitzea
- Harremanetarako

<http://www.ehu.eus/eu/web/ikasle-kontseilua/ikasleen-elkarteak-nola-sortu>

2.4 JUNIOR ENPRESAREN FUNTZIONAMENDUA

Estatutuetan zehaztutakoaren arabera, eta Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Organoek hartutako erabakien arabera kudeatzen da elkarteak. Horregatik, Junior bakoitzaren antolakuntza, jokaera eta funtzionamendua oso desberdinak izan daitezke.

Batzar Orokorra Junior Enpresaren organo nagusia da, eta bertako erabakiak gehiengoaren bidez hartzen dira. Gutxienez urtean behin elkartu beharko dute Ohiko Batzarra ospatu eta bertan Urteko kontuak eta aurrekontuak onartzeko; Ez-ohiko Batzarra berriz, Estatutuetan zehaztutakoan ospatuko da.

Batzar Okorraz gain, Zuzendaritza Batzorde bat egon beharko du enpresaren eguneroko kudeaketaz arduratzeko. Junior Enpresaren ordezkaritza legala bertako presidentek izango duelarik, honen izenean jardun eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak gauzatuko dituelarik.

Junior Enpresak dagokion probintziako Gobernuaren Ordezkariordeztan bazkideen liburua, akta liburua eta kontabilitate liburua aurkeztu beharko ditu. (ORMA, 2012). Bazkideen liburuan bazkide guztien izen-abizenak, lanbidea eta bizilekua egiaztatu beharko dira, elkartean duen karguarekin batera. Akta liburuan Batzar Orokorrako bilera guztien datak, partaideak, hitz egindako gaiak eta hartutako erabakiak jaso beharko dira. Kontabilitate liburuan, berriz, gastu guztiak erakutsi behar dira hauen jatorria azalduz, eta sarrera guztiak, hauen inbertsioak argituz (beharrezko kasuetan

BEZ liburuak ere erabiliko dira). (Federacion de Junior Empresas del Sur – FJESUR, 2013).

2.5 JUNIOR ENPRESAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

Junior Enpresak zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu, hala nola, partaideek duten titulazioaren arabera. Orokorrean, CEJE-ko partaide diren enpresek ondorengo arloak eskaintzen dituzte:

- Enpresa aholkularitza
 - Marketin azterketak
 - Dokumentazioa
 - Komunikazioa
 - Enpresa prestakuntza
 - Informatika eta telekomunikazioa
 - Geoteknika eta ingurumena
 - Arkitektura
 - Ingeniaritza
 - Matematika eta estatistika azterketak
- (www.ceje.org)

Aipatutako zerbitzu hauetatik lortutako sarrerak ondorengo moduan kudeatzen dituzte, irabazi asmorik gabeko elkarteak direla kontutan izanik: posible da zati bat proiektuan parte hartutako kideei beka moduan ematea ondoren beraien heziketarako erabilgarri izango zaielarik, eta gainerako zatia Junior Enpresaren fondoan barneratzen da. Fondoan dagoena elkarteko kide eta unibertsitatekoak diren guztien prestakuntza proiektuetara bideratu ohi da, heziketa akademikoa osatu ahal izateko. (Federacion de Junior Empresas del Sur – FJESUR, 2013).

2.6 JUNIOR ENPRESAREN ABANTAILA ETA DESABANTAILAK

2.6.1 Abantailak

Junior Enpresak onura ugari eskaintzen dizkio elkarteko kide denari, baita hauen zerbitzuak kontratatzen dituzten enpresei ere.

JUNIOR KIDEENAK:

- Unibertsitate ikasketak burutu bitartean Juniorrari esker esperientzia gehitzen doa, eta noski esperientzia honek ematen duen ezagutza ere bai, praktikoa zein antolaketakoa.
- Junior Enpresak benetako enpresen modukoak direnez, enpresek eskaintzen dituzten zerbitzuak eskaintzeko gai dira.

- Lan merkatuan barneratzeko modu positibo bat da, giza baliabideen eskarmentua gero eta handiagoa baita. (www.ceje.org).
- Bertan lan eginaz lortzen diren abilezia eta gaitasunak, adibidez: zuzendaritzako gaitasuna, gatazken ebazpena, bezeroekin harremanak eta talde-lana. Normalean hauen inguruan ez da zuzeneko heziketa akademikorik ematen (baina bai zeharka), eta lan merkatuan baloratzen diren gaitasunak izateaz gain, baliagarriak dira ekintzaitzarako.
- Kontaktu profesionalen sare bat sortzeko aukera ematen du, unibertsitate nahiz enpresa eremuan, baita kontaktatzen diren erakunde ezberdinen bitartez ere.
- Ekintzaile izan nahi duenarentzat lagungarria da, aurretik esperientzia lortzen baita ondoren enpresa propioa sortzea erabakitzen denerako. Izan ere, Juniorrak enpresa kudeatzeko aukera ematen du enpresa sortzeak suposatzen dituen hainbat arrisku gain hartu gabe. (E. Sereno, 2013).

JUNIOR ENPRESA KONTRATATZEARENAK:

- **PREZIO LEHIAKORRAK:** Beste enpresekin alderatuta Junior Enpresek orokorrean gastu gutxiago jasaten dituzte, horregatik eskaintzen duten zerbitzuaren kostua merkeagoa da, bezeroa den enpresarentzat azken prezioan positiboki eraginaz. Hala ere, onura ekonomiko hau ez da bateraezina Juniorraren oinarrizko helburuarekin, hots, bere bezeroen beharrei erantzun bizkorra eta fidagarria ematearekin.
- **BERRIKUNTZA:** Junior enpresariak unibertsitateko ikasleak eta gazteak izanik, dinamikoa, aldaketaz betetakoa eta adimen irekikoa den giro batean daude beti, sinergia berrien ezarpena eta ideia berrien hedapena erraztuz.
- **MALGUTASUNA:** Junior Enpresak bere bezeroei zerbitzu pertsonalizatua, dinamikoa eta proiektu bakoitzaren betebeharrak egokitzen dena eskaintzen die.
- **ERAGINKORTASUNA:** Juniorrek proiektu bakoitzaren xedea zehaztasun osoz betetzeko gaitasuna duten etorkizuneko profesionalekin kontaktatzen dute. Elkarteko kideen gaztetasuna, dinamikotasuna, ikasteko gogoia eta irakasleen aholkuak ezaugarri ziurrak dira, proiektu bakoitza ahalik eta egokien, ahalik eta denbora gutxienean eta bezeroek bilatzen duten kalitatea bermatuz egiteko.
- **KONPROMISOA:** Junior Enpresak burututako proiektu bakoitzak irrika eta konpromiso osoa dauka bertako kideen partetik, bai bezeroarekiko baita Junior Enpresa berarekiko ere. (www.ceje.org).

DATUETAN OINARRITUZ ABANTAILAK:

Europar Batzordeak egindako ikerketaren emaitza batzuk aztertu ondoren, Junior Enpresa batean aritzeak eragin positiboak dituela baieztatu dezakegu.

Ikerketa hau gauzatzeko, galdeketa egin zitzaion ikasle izandako talde bati, batz besterik ondorengo adina zutela kontutan izanik: 34 urteko ikasle ohi arruntak, 32 urteko enpresa-curriculum-a zuten ikasle ohiak, eta 28 urteko JADEko ikasle izandakoak. Hala ere, suposatzen da JADEko ikasleak gaitasun eta ezagutza handiagoa izango dutela 32 urtetara, eta gero 34 urtetara iristean, nahiz eta honen ebidentzia estatistikorik ez egon. (Junta Directiva CEJE, 2013).

4. *Irudia: Europar Batzordeak egindako ikerketaren emaitza batzuk*

	emaitza ona
	emaitza erregularra
	emaitza baxua

Enpleguan eragina	Ikasle arrunta	Enpresa curriculum-a	JADE ikaslea
Lehenengo lanaldia graduatu eta segituan	59%	66%	78%
Denboraldi bat langabezian (-)	22%	19%	11%
Denboraldi bat baino gehiago langabezian (-)	8%	6%	1%

Eskuratutako lan-kalitatean eragina	Ikasle arrunta	Enpresa curriculum-a	JADE ikaslea
Egungo lanbidean sormena eta ideia berriak	93%	96%	97%

Iturria: norberak egina eta euskaratua, ondorengoan oinarrituz: CEJE (2013). Resultados Comision Europea.

Beraz, Junior Enpresan aritzeak, beste hainbat atalen artean, enpleguan eta lanaren kalitatean eragin dezake. Taularen arabera honela:

- Graduatu eta zuzenean lehenengo lanaldia JADEko ikasleen %78ak lortzen du, enpresa-curriculum-a duten ikasleen %66ak eta ikasle arrunten %59ak. Argi dago emaitza onena JADEko ikasleena dela, beraz, partaide izateak graduatu eta jarraian enplegua lortzeko aukera gehiago ematen dituela esan daiteke.
- Denboraldi bat langabezian ikasle arrunten %22a egoten da, enpresa-curriculumeko ikasleen %19a eta JADEko ikasleen %11a. Denboraldi bat baino gehiago, aldiz, ikasle arrunten %8a, enpresa-curriculum-a duten ikasleen %6a eta JADEko ikasleen %1a. Langabezian egoten diren ikasleen kopuru txikiena JADEko ikasleena da, hortaz, JADEk enplegua bilatzeko erraztasuna ematen duela esan daiteke.

- Jatorrizko enpleguan sormena eta ideia berriak dituzte ikasle arrunten %93ak, enpresa-curriculumeko ikasleen %96ak, eta JADEko ikasleen %97ak. JADEkoek berrikuntzarako atak zabalago dituztela esan daiteke, nahiz eta enpresa-curriculumak duten ikasleengandik ez asko desberdinu.

Ondorioz, Junior Enpresek ikasleengan efektu positiboak sor ditzakete, batez ere, etorkizunean enplegua bilatzeko unean, langabezia ekiditeko unean, eta baita beraien lanpostuan lana egiteko moduan ere; eginez ikasi dutelako.

2.6.2 Desabantailak

Junior Enpresak onura ugari eskaintzeaz gain, bere alde negatiboak edo ez hain positiboak ere baditu:

- Junior Enpresa legeak zehaztutakoaren arabera eratzen den elkarte izanik, izaera juridikoa du, baita jarduteko gaitasuna ere. Hala ere, aurretik aipatutako moduan, araudiak ez du beste elkarteengandik bereizten; horregatik, elkartean legea aplikatzen zaio. Erregulazio zehatz hori ez izateak, gizartean ekintzaile bezala izan dezakeen erabateko garapena ekiditen du. (Garrido, I. & Gonzalez, R., 2012).
- Generazioaren txandaketak duen zailtasuna, kasu gehienetan proiektu asko erreleboaren unean bertan behera gelditzen baitira. Izan ere, hauen bultzatzaileak ikasketak amaitu eta joan egin behar dute, eta ondorengoek ez dutenez proiektuarekin jarraitzeko interesik, jarduera deusez gelditzen da. Beste kasu batzuetan arrakastak desagerrarazten du Junior Enpresa, Spin-off bat izatera pasatzen delako edo bertako kideak bezero diren enpresengandik kontratatuak izan direlako. (Granadako Unibertsitatea, 2014).
- Denbora asko behar izatea. Bazkidea elkartean egoteaz gain, ikasketekin ari baita; eta behin elkartean konpromisoa jartzen baduzu denbora asko eskaini behar diozu. Orain gainera Boloniarekin talde lanak direla eta, denbora gutxi dute beste ekintzak egiteko. (I. Gurrutxaga, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

Esan daiteke erreleboaren unea dela Junior Enpresen puntu ahulena, horregatik errealitatean gertatzen dena berehala garbiago ikusi ahal izango dugu zenbait Juniorren kasua aztertuz.

Jarraian komentatutako abantaila eta desabantailak laburbiltzeko asmoz eginiko eskema:

5. Irudia: AMIA diagnostikoa

		AMIA			
		ENPRESAREN AZTERKETA	INGURUNEAREN AZTERKETA		
Indarguneak	<ul style="list-style-type: none"> Esperientzia eta ezagutza handitu Lan merkatuan barneratzeko modua Akademikoki lortzen ez diren abilezia eta gaitasunak lortu Kontaktu profesionalen sarea sortzeko aukera Enpresa kudeatu, hainbat arrisku gain hartu gabe 	<ul style="list-style-type: none"> Idea berrien hedapena Eskaintako zertitzua merkeagoa Zerbitzu pertsonalizatua Proiektu bakoitzaren kalitatea bermatua Konpromisoa (bezeroekiko, Junior berarekiko) 	Aukerak		
Ahuleziak	<ul style="list-style-type: none"> Erreleboa/generazio aldaketa Spin-off bat izatera pasa Kideak enpresa bezeroengandik kontratatatuak Denbora asko eskaini behar da 	<ul style="list-style-type: none"> Beste elkarteengandik bereizteko araudirik ez egotea Ekintzaile bezala guztizko garapena ekiditea 	Mehatuak		


Iturria: norberak egina

3. UPV/EHU_n ERATUTA DAUDEN JUNIORRAK

Junior Enpresen mugimendua Espainia guztian zabaldua egonda ere, nire azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrituko da. Konkrétuki, UPV/EHU_n 2016an eratuta dauden Junior Enpresetan.

UPV/EHUko Elkarten Erregistroan eta beste hainbat iturritan egindako kontsulten arabera, egun Euskal Herriko Unibertsitatea osatzen duten campusetako batean ez dago Junior Enpresen presentzia aurkitzerik, aldiz beste bi campusetan bai. Hau da, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetan funtzionamenduan dauden hainbat Junior topatu daitezkeen bitartean, Arabako campusean ez dago bat bera ere. Guztira UPV/EHU_n sei Junior Enpresa aurki ditzakegu, Gipuzkoan hiru eta Bizkaian beste hiru, azken hauek FVJEko partaide izan gabe.

6. Irudia: UPV/EHUn eratuta dauden Junior Enpresak



Iturria: norberak egina

Ondoren, Bizkaia eta Gipuzkoako campuseko Juniorrei buruzko hainbat ezaugarri aipatuko ditut:

3.1 BIZKAIKO CAMPUSA

3.1.1 Bindigo

Bindigo Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean (UPV/EHU) kokatuta dagoen Junior Enpresa da.

Hau Arteverse Junior enpresaren banaketaren ondorioz sortu zen 2014 urteko irailean. Bertako kide zen batek, Arteverseren desegitea zela eta junior berria eratzea erabaki zuen, gaur egun Bindigoko kide den bati laguntza eskatuz. Lopez, I. (2014, abenduak 14). Ioba Lopezeri elkarrizketa https://www.youtube.com/watch?v=bbq_Hg-aEmw –tik berreskuratua.

Ondorengoak dira eskaintzen dituzten zerbitzuak:

- Diseinu grafikoa: negozioaren irudia berritzea edo merchandising elementuak gehitzea itxura elegante eta modernoarekin.
- Web diseinua: publikoarengana iritsi ahal izateko ongi posizionatutako eta eguneratutako web orrialdearekin negozioa bultzatzeko.

- Ekitaldien antolaketa: argazki-erreportajeetatik hasita iragarkietara, esperientziari irudi eta soinua jartzen diote.
- Sare sozialen kudeaketa: sare sozialen edukia kudeatzen dute, onlineko ospea zaindu eta emaitzak analizatu.

Beraien ibilbidean zehar proiektu ezberdinak ere gauzatu dituzte ekitaldi eta komunikazio atalei dagokionean:

- Noche Suprema: Estatu Batuetako musika eta umore festibal batean inspiratuta dagoen ekintza da. Galderaz betetako lehiaketa da, eta sari bat lortzearen lehiazten da giro onean eta ondo pasatzeko helburuarekin. Azkena 2016ko otsailak 25ean ospatu zuten, aurretik behin edo behin ere gauzatu izan zelarik.
- I Jornada sobre Turismo Chino en el País Vasco: Txinatarren turismoak duen garrantzia dela eta, maila nazionalean erakunde asko beraien eskaintza hobetu eta txinatarren turismora egokitzeko lanetan ari dira. Jakina dago Euskadira ere iritsiko dela, beraz Euskadiko negozio eta turismo sektorea txinatar merkatuaren beharretara sentikorra goa izatea nahi da. Ezaugarri bereziak dituen merkaturia ezagutzeko antolatu zen 2015ko Irailak 21eko jardunaldi hau UPV/EHU eta Chinese Friendlyren laguntzarekin.
- Robin Book: proiektu propio bezala sortu zen, irakurketa bultzatu eta erabiltzen ez ziren liburuak aprobetxatzeko helburuarekin. Lehenik liburuaren bilketa egin zen eskola, liburutegi eta institutuekin kontaktuan jarriz, eta bitartean sare sozialetan eskaera zabaltzen joan ziren edozein pertsonak ekarpena egin zezan. Ondoren, 2015eko martxoak 21 eta 22an azokan liburuak trukatzeko aukera eman zen eta soberan gelditutako liburuak opari eman ziren.
- PolvorON: 2014ko eguberrietarako UNICEFen alde egindako proiektua da, haurren heriotzak murrizteko fondoak lortzeko helburuarekin. Polboroa ahoan sartuta familia eta lagunak zorientzeko bideoa grabatzean datza, hau da, zorientzeko modu ezberdin bat. Honekin batera, Bidingokoek UNICEFen aldeko mezua bidaltzera animatzen zuten jendea.

Bidingon profil ezberdinetako jendea elkartzen da, eta hori da bertakoek bilatzen dutena. Denak maila berdinean kokatzen dira eta ez dago nagusirik, hau da, ez dago besteen gaineratik dagoen pertsonarik. Hala ere, beti egongo da lider bat baina ez da buru ofiziala. (www.bindigo.es)

3.1.2 Komorebi

Komorebi Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko (UPV/EHU) Junior Enpresa da 2014 amaieratik.

Unibertsitatean klasetara joan eta apunteak hartzeaz gain, zerbait gehiago egiteko gogoz zeuden zortzi adimen gazte eta egonezinen lanaren emaitza da Komorebi.

Berritzaileak dira eta eremu ezberdinetan esperimentatzea gustuko dute, horregatik jarraitzen dute beraien heziketarekin kongresu eta tailerretara joanaz, eta jakina beraien arteko asteroko bileretan.

Hauek dira eskaintzen dituzten zerbitzuak:

- Web diseinua: bezero mota guztientzako web orrialde eskusiboak diseinatzen dituzte.
- SEO: bezero eta enpresak promozionatzeko gaitasuna dute, bilatzaileen rankingean hauen posizioa hobetuz.
- Sare sozialen kudeaketa: partaidetza aktiboa eta edukien planteamendu bereziak egiten du bereizgarri beraien Community Manager lana.
- Irudi korporatiboa: bezeroaren identitatea modu bisual batean eskaintzen diote publikoari.
- Marketing: salmenta bolumen handiagoak lortzera zuzendua, on-line nahiz off-line bidez.
- Ekitaldien antolaketa: ekitaldiaren kudeaketa bere osotasunean.
- Edukien kudeaketa: helburu den publikoarentzat erakargarri diren edukiak sortu eta hedatzeko gaitasuna.
- Ikus-entzunezko edukiak: irudiak erabiliz edukiak sortzeko ahalmena.
- Diseinu grafikoa: mezua diseinu batean transmititzen dute.

Bezeroentzat lan egiteaz gain proiektu propioetan ere jarduten dute. Eremu ezberdinetako proiektuak gauzaten dituzte, baina batez ere komunikaziokoak. Sekidan orain arte hainbat arlotan burutu dituzten proiektuetako batzuk:

KOMUNIKAZIOA:

- Nabari: Nabarik emakume eta gizonezkoentzako poloan lehenengo bilduma aurkeztu zuen Ion Fizen eskutik. La Mercedes Benz Fashion Week Madrid bitartean Komorebi arduratu zen honen komunikazio kanpaina gestionatzeaz, prentsa-ohar ezberdinak idatzi, hizkuntza ezberdinetara itzuli eta komunikabide nazional eta internazional ezberdinetara banatuz.

DISEINU GRAFIKOA eta WEB DISEINUA:

- Julen Basagoiti: ekintzaile honek online bidezko eskola sortu zuen, gai ezberdinen gainean erabiltzaileen ezagutza areagotzeko (La escuela de Inteligencia Directiva). Komorebik web plataforma, bilatzaileetan posizionamendua eta proiektuaren irudi korporatiboa diseinatu zituen.

EKITALDIAK:

- Mube, Music&Beer Sesionss: bertaratutakoei zerbeza ezberdinak probatu, musikaz zuzenean gozatu eta Bilboko janaria dastatzeko aukera ematen dien ekitaldia da. Kultura sustatzea eta artisau lana integratzea helburu duen

elkargune honek, sozializatzeko, ondo pasatzeko eta gauza berriak ikasteko balio du.

PRODUKTUAK:

- APPetit: erabilera simple eta berritzailea duen Smartphontzako aplikazioa. Aplikazioaren erabiltzaileek afari sorpresetara joan ahalko dute, izan ere partaideek 12 ordu lehenago jasoko dute mezua lokalaren kokalekua jakinaz; menua, dekorazioa eta ikuskizuna APPetiten esku egonik. Publiko orokor batentzat lortzea zaila den eskaintza gastronomikoaz gozatzeko modu dibertigarri eta ezberdina eskaintzen du.

Beraien lan egiteko modua *learning by doing*-en oinarritzen da, kalitatezko eta profesionalak diren lanak gauzatuz. (www.komorebilbao.com)

3.1.3 Ikastravelling

Ikastravelling bost gazte Bizkaitarrek osatutako UPV/EHUko Junior Enpresa da. Bere berezitasun handiena partaideak fakultate ezberdinetakoak izatea da: bi Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa fakultatekoak, bat Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatekoa, eta beste biak Elorrietako San Ignacio Institutuko Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleak. Hala ere, Elkartearen egoitza Leioako unibertsitatean dago, bertan baitute bulegoa ZITEK enpresak sortzen laguntzeko Bizkaiko programak utzita.

Gaur egun gazteok edozein jarduera antolatzeko dauzkagun arazoak direla eta sortu zen Ikastravellingen ideia 2014 urtearen amaieran. Izan ere, Juniorreko bi partaidek gelakideekin ikasketa amaierako bidaiak egiteko asmoa zuten, baina inork ez zuenez antolatu nahi, bi hauek hasi ziren mugitzen, gauzak begiratzen, bankuetara joan, laguntza sozialez enteratu... eta honela hasi zen Juniorraren garapena.

Elkarte honek gazte eta bidaiak agentziaren arteko bitartekari lanak egiten ditu komertzial moduan, agentziako bidaiak berdina eskaintzeaz gain onura batzuk emanaz: finantzaketa eta hogeita lau orduko arreta.

Hauek dira eskaintzen dituzten zerbitzuak:

- Taldeentzat bidaiak: hauek ahalik eta merkeen lortzen dituzte unibertsitatekoentzat nahiz institutukoentzat, eta gainera bidaiaren zati bat finantzatzeko aukera ematen dute. Eskaintzen dituzten bidaiak esaterako, Kuba, Tunez, Salou, Italia...
- Jarduerak: bidaiak gain asteburuetan modu merke batean ongi pasatzeko aukera ere eskaintzen dute. Adibidez: sky, surf, globoan ibili, paintball, itsasoko jarduerak, eskalada... Gainera web orrialdean beraien aipatu ez duten aktibitatea proposatzeko aukera ematen die bezeroari.

- Autobus zerbitzua: edozein jaialdi edo jardueretarako bidaia egin ahalko dute bezeroek autobusez, Ikastravellingek Bizkaiko sektoreko enpresa onenarekin lan egiten baitu.
- Jaialdiak: gaueko jaiak, kontzertu gaua, sagardotegia...

Ikastravelling. (2015, maiatzak 1). Ikastravelling-eri elkarrizketa <https://soundcloud.com/ikastravelling-bidaiak/entrevista-ikastravelling-1-05mp2>-tik berreskuratua.

Aurretik aipatu bezala finantzaketa aukera eskaintzen dute, ondorengo produktuak salduz:

- Pizgailu pertsonalizatuak.
- Imitaziozko lurrinak.
- Boligrafo eta arkatz pertsonalizatu eta ez-pertsonalizatuak.
- Kamisetak nahi den logo, irudi eta esaldiarekin, publizitatea eta propaganda egiteko. Gainera Ikastravellingek kukuxumusurekin egiten du lan.
- Aurretik hauekin zehaztutako diskoteka edo festetako sarrerak.

Talde gazte eta dinamiko hau gazteen beharrak asetzen saiatzen da, low cost politikarekin lan eginez baina produktuaren kalitatea ahaztu gabe. Turismo enpresak hurbildu beharrean gazteak beraiengana joateko zain egoten dira; aldiz, Ikastravelling aurreratu egin da prozesu horretan eta lortutako emaitzak onak izan dira.

Honela, gazteak begiratzen diren ispilu izan nahi dute, eta gazte-aisialdi merkatuko erreferentzia izatera iritsi. (www.ikastravelling.com)

3.2 GIPUZKOAKO CAMPUSA

3.2.1 Magna SIS

Magna SIS 2012ko uztailean sortu zen Donostiako Informatika Fakultateko (UPV/EHU) Junior enpresa da. Hau da, unibertsitateko ikasleez osatutako eta beraiek osotasunean kudeatutako enpresa bat da. Helburu nagusia lan esperientzia lortzeko ikasleen eskura dagoen tresna bat izatea da.

Magna SISekoek weba etorkizuneko plataforma moduan ikusten dute eta horretan biziki sinesten dute. Horregatik arlo horretan espezializatuta daude eta konponbide integralak eta kalitate handienekoak eskaintzen dituzte. Beraien zerbitzu-gutuna honako hau da:

- Webak: web aplikazioak, neurrira egindako webguneak eta webguneak edukiak kudeatzeko sistemekin.
- Weberako soluzio integralak: diseinu moldatzaileak, bilatzaileetarako sailkapenaren optimizazioa, erabilpenaren estatistiken analisi eta kudeaketa, zerbitzu teknikoak eta mantentze lanak.

- Garapen generikoak: mahai-gaineko aplikazioak plataforma desberdinetarako eta mugikorretarako aplikazio natiboak.
- Gainerako zerbitzuak: aholkularitza informatikoa, formazio kurtso eta programak, dibulgazio hitzaldiak.

Jarraian elkarte honek arlo ezberdinetan garatu dituen proiektu batzuk:

JARDUERAK:

- Magna Challenge 2013: Magna SISEk lehiaketa honen lehenengo edizioa antolatu zuen 2013ko irailean, non Donostiako Informatika Fakultateko edozein ikaslek bere software proiektu-idea aurkeztu zezakeen. Irabazlearentzat saria Nexus 7 tableta eta gainera, proposatutako proiektua Magna SISEn barruan gauzatzeko aukera enpresako praktiken bidez eta elkartearen laguntza eta baliabideekin.

GARAPENAK:

- Magna Ordutegiak: ikasleen beharrei erantzuteko asmoz web plataforma baten bidez zerbitzu bat sortu zen, non ikasleek beraien irakasgaiak aukeratu eta asteroko klase ordutegia automatikoki osatu zezaketen. Ordutegia edozein egutegi zerbitzura esportatu daiteke, sinkronizatuta mantentzen da eta edozein gailutik atzitzeko aukera ematen du. Hasiera batean Donostiako Informatika Fakultateko ikasleei zuzendua izan zen, EHU/UPVko beste fakultatetara hedatzeko asmoarekin.

BIDEOAK:

- Postaren kudeaketa: Gipuzkoako Ikasle Kontseiluak egindako enkargua izan zen. Bideoetan unibertsitateko posta elektronikoko kontua beste posta elektronikoa pertsonal batera birbideratzeko modua azaldu behar zuten, posta korporatiboaren erabilera errazteko, mezuen irakurketaren latentzia murrizteko eta unibertsitateko ikasleen artean erabilera sustatzeko honen irisgarritasuna handituz.

WEB KORPORATIBOAK:

- Ikasle topaketak: Gipuzkoako Ikasle Kontseiluak 2012ko azaroan Ikasle Topaketak antolatu zituen, hortaz ekitaldiaren egitaraua erakusteko eta ekintzei buruzko informazioa eskaintzeko web orria egiteko mandatua jaso zuen Magna SISEk. Erabilitako estilo, itxura eta koloreak ekitaldiaren irudi eta filosofiaren bat egiten zuten eta antolatzaileei asko gustatu zitzairen. Horretaz gain, edukiak kudeatzeko sistema bat erabili zen antolatzaileei informazioa aldatzeko aukera emanaz. (www.magnasis.com).

3.2.2 Dinitek

Dinitek Donostiako Eskola Politeknikoan (UPV/EHU) dago, beraz ingeniarietza arloko Junior Enpresa da. 1992 hasieran sortu zen Amara auzoko Ingeniarietza Tekniko Industrialeko Unibertsitate Eskola zaharrean, hortaz hogei urte baino gehiago daramatza lanean.

Eskolako karrera guztietako ikasleak daude egun elkartean, eta bertatik 300 ikasle baino gehiago pasa dira enpresa, erakunde edo partikularrekin elkarlanean arituz. Kideek erreferente izan nahi dute Euskadiko ingeniarietza arloko ikasleen berrikuntza eta ekintzailetzari dagokionez. Horregatik, bertako ikasleei proiektu ezberdinetan aukerak ematen saiatzen dira zentroarekin kolaboratuz.

Dinitek Junior Enpresak laguntza teknikoa eta aholkularietza-zerbitzua eskaintzen ditu ingeniarietza arloko enpresei zuzenduta. Honakoa da beraien zerbitzu-gutuna:

- Ingeniarietza proiektuen garapena
- Azkeneko urtetako ikasleen eskaintza praktiketarako
- Produktu, pieza mekaniko eta zirkuitu elektriko/elektronikoen diseinu eta prototipaketa
- 3D inprimatzeak
- Ekitaldien antolaketa
- Formakuntza ikastaro pertsonalizatuak

Beraien ibilbidean zehar atal ezberdinetan garatutako proiektuak hauek dira:

JARDUNALDIEN ANTOLAKUNTZA:

- Zubi lehiaketa: Parte hartzeko aurretik izena eman behar zen, eta egunean bertan 5000 izozki makiltxo, altzairuzko kableak eta kola zuria erabiliz zubia sortu, non irabazlea diruz saritua izan zen. Bi edizio antolatu izan dira, bigarrengoan berrikuntza moduan bozketa herrikoia eginaz. Dinitek izan zen jatorrizko ideia izan zuena eta lehiaketaren antolatzailea, hainbat laguntzaileekin batera, azken hauen bidez lehiaketako materiala lortuz, diru-laguntza jasoaz...

INGENIARITZA PROIEKTUAK:

- Paper fabrika: Gipuzkoako ORLOGA S.A. enpresarentzat paper fabrika baten instalazioen garapena gauzatu zuen.

UNIBERTSITATEA:

- Ingurua lotu: unibertsitatea eta inguruaren arteko loturaz garapen sozial eta ekonomiko sendoagoa lortzea helburu duen proiektu honen aurkezpena egin zuen Europar Batasunean Magna SISEkin batera.

Proiektuak gauzatzeaz gain, Dinitekek 2013ko azaroan hiru kurtso antolatu zituen Hirikilabs! proiektuaren barnean, Tabakalerarekin elkarlanean. Tailerrak hardware eta

software libreen ingurukoak izan ziren, Donostiako Eskola Politeknikoko ikasleei zuzenduak. (www.dinitek.com).

3.2.3 Fabrica-T

Fabrica-t Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (UPV/EHU) kokatuta dagoen Junior Enpresa hau 2014ko irailean sortu zen.

Objektuak sortu, konpondu edota hauek hobetzeko esperimentaziora zuzendutako, eta gainera fabrikazio digitalarekin erlazionatutako ideia eta proiektuentzako zein teknologia hauen erabilera ezberdinak ikertzeko elkargunea da. Enpresa irakasleen tailer edo ekimenetan parte hartzeko prest dago, baita fabrikazio digitalarekin lotutako ikasleen proiektuak aurrera eramateko ere.

Hemen elkarte honek garatutako proiektuetako batzuk:

- Kayak Surf txapelketa: Donostiako Zurriola hondartzan ospatutako 2014ko Euskadiko IV. kopa eta Euskadiko Kayak Surf zirkuituko V. probarako zurezko trofeoen gauzatzea.
- Baitara baita: “BAITARA BAITA: Erljio-aniztasuna, erronka eta aukera” erakusketarako apalen diseinua.
- Hegazkin lehiaketa: arkitektura eskolan antolatutako UdaberriARK 2015en barne prestatutako lehenengo hegazkin lehiaketa; distantzia, denbora eta diseinu onentzako sariak tartean zirelarik.
- Olatu talka: honen 2015eko jaialdian, Kontxako arkupeetan izandako Gaumarket-erako MDF zurezko kartelak egiteko aukera izan zuten.

Fabrikazio digitalaren alorrean aritzeaz gain, ikasleei enpresa kudeaketaren inguruan esperientzia ematen zaie, beraien heziketa osatzeko helburuarekin. (www.fabrica-t.com).

Aipatutakoak 2016an funtzionamenduan jarraitzen duten elkarteak dira. Hala ere, badira batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Nagusian oraindik inskribatuta daudenak baina ez dutenak beraien jarduerarekin jarraitzen, adibidez, EBEDEK (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola- Eibar) eta JUNE (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea- Donostiako atala). (*Ikusi 3. ERANSKINA*)

4. GIPUZKOAKO CAMPUSEAN SAKONDUZ: MAGNA SIS

Mugimendu honen analisiarekin jarraituz, Gipuzkoako Campusean jarduten duen batean sakonduko dut azterketa, hain justu ere, Donostiako Informatika Fakultateko Magna SISEn.

4.1 TALDEKIDEAK

Elkarte hau bederatzi kidek osatzen dute 2016an; Zuzendaritza Batzordeko ez gain beste lau bazkide baitaude, guztiak Informatika Ingeniaritza Graduako ikasleak:

7. Irudia: Magna SIS enpresaren osaera



*kolore ilunekoak Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenak dira

Iturria: norberak egina

Hauek bertako partaide izateko ondorengo hiru baldintzak betetzen dituztelarik:

- Donostiako Informatika Fakultateko ikaslea izatea (graduako lehen urtetik hasita doktoretza programara bitartean).
- Hogeita hamar urtetik beherakoa izatea.
- Magna SISEn helburu eta filosofiarekin bat etortzea eta horretan jarduteko denbora minimo bat edukitzea. (www.magnasis.com).

Aipatutako guztiak 2015eko uztailetik dira bazkide, hau da, Magna SISEko bigarren generazioa dira. Aurreko generaziokoei ikasketak amaitutakoan elkartea itxi edo jende berria bilatzearen artean erabakitzea egokitu zitzairen, ez baitzuten beste aukerarik. Hauek bigarren aukerarekin saiatu ziren, eta jendea parte hartzera animatu zenez, praktika programa baten bidez ikasteko aukera eman zitzairen.

Partaide hauek oraindik ere bertan jarraitzen duten arren, 2015-2016 ikasturtean amaituko dituzte ikasketak eta hirugarren generazio bati hasiera emateko, hauek ere

praktika programa jarri zuten martxan. Jende berriarekin 2016ko urtarrilean elkartu ziren eta praktika-aldiari hasiera eman zitzaien apirila amaiera arte. Praktikatakoek burututako proiektuak RooMate du izena, eta ondorengoan datza: pisua partekatzeko web orrialdea da, hau da, zuk etxea baduzu bertan eskaini dezakezu, edo bakarrik bazaude jendea bilatzeko balio dizu. Hasiera batean Donostia guztiak erabiltzeko da eta edonor sartu daiteke, baina aipatu bezala praktikakoek burututakoa izanik, ez da izugarritzko proiektua; beraiek teknikoki ikasi eta taldean lan egiten trebatzeko balioak izatea baitzen helburua.

Hala ere, apirilean praktikak amaituta ere, bigarren generazioko bazkideak ikasturte amaiera arte egongo dira berriekin, orduan amaitzen baitituzte ikasketak. (J. Garrido, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

4.2 ESKAINTZA

Magna SISEk esperientzia praktiko eta integrala eskaintzen du, arlo ezberdinetan:

- Unibertsitatean eskuratutako ezagutza akademikoen aplikazioa enpresa-ingurune batean.
- Teknologia berrien, metodologiaren, lengoaien, frameworken, liburutegiaren eta tresnen erabilera, esperimentazioa eta ikasketa.
- Benetako proiektuen kudeaketa: kontratuak bilatu eta lortu, aurrekontuak egin, lan kargak estimatu, bezeroekin harremanak eta haien itzaropenak kudeatu, konpromisoak bete, ezusteko egoerekin borrokatu...
- Enpresa kudeaketa erreala, zerga betebeharren eta aplikatu beharreko gainerako legediaren ezagutza eta betetzea, baita barne antolaketarako prozesu eta egitura eraginkorrak.

Horretaz gain, enpresa-praktikak ere eskaintzen dituzte. Honela, ikasleen lana hautazko kredituekin saritzen da graduko ikasketen kasuan edo aukera askeko kredituekin desagertze bidean dauden kasuan. (www.magnasis.com) Horretarako hitzarmenak egiten dituzte. Ikaslea motibatuzko beste modu bat dela uste dute bazkideek, zuzeneko ordainsari ekonomikorik ezin baitzaie eskaini. Hala ere, ikasleak ez dira Magna SISEko kide egiten kredituak lortzeko bakarrik, hau da, ez dago helburu horrekin bakarrik bazkide egiten den ikaslerik. (J. Garrido, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

4.3 ANTOLAKETA

Barne antolaketari dagokionez, Magna SIS proiektuetan antolatzen da. Proiektu bakoitzak arduradun edo zuzendari bat eta pertsona talde bat dauzka, elkarrekin lan egin eta proiektuaren helburuak lortu ahal izateko. Gainera, proiektu bakoitza modu independentean garatzen da.

Antolatzeko modu honek, proiektu bakoitzean partaideek ardura ezberdinak hartzea posible egiten du, adibidez, zuzendaritza, garapena, probak eta errebisioa... Baina beti horietako batean jardun behar izan gabe. Gainera, partaide berriei enpresaren egituraren modu azkarragoan sartzea ahalbidetzen die, lanean hasteko nahikoa baita bera garatzen ari den proiektuaren moduak soilik ezagutzea. (www.magnasis.com).

Normalean posta elektronikoko bidez jasotzen du proiektuaren eskaera Zuzendaritza Batzordeak, eta honek hasiera batean bazkide guztiei eskaintzen die parte hartzeko aukera, proiektuaren elkarrizketa momentura arte. Hala ere, denboraren, proiektuaren... arabera erabakitzen dira partaideak, kontutan izanda zuzendariak kandidatu bat aukeratu dezakeela.

Esan bezala, proiektu bakoitzak arduradun bat eduki behar du, eta gehienetan behintzat boluntarioki aukeratzen da pertsona hori. Arduradunaren egitekoa taldea koordinatu eta zuzentzea da, baita Zuzendaritza Batzordea proiektuaren bilakaeraz informatzea ere. Proiektua handia izanez gero, arduradun horrek azpi arduradunak aukeratuko lituzke, baina bestela ez dira ardura gehiago banatzen.

Bigarren generaziokoek antolatzeko modu hau besteengandik jaso zuten, eta ez dakite Magna SISEn funtzionamendu egokiaren arrazoia antolatzeko modu hori den edo ez. Ez dira horretan pentsatzen jarri. Hala ere, ez dute aldatzea planteatzen, hori baita besteengandik eskuratu zutena eta horrela gustura egiten dute lan. (J. Garrido, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

4.4 FAKULTATEAREN LAGUNTZA

Informatika Fakultateko Dekanotzaren onespena eta laguntza jasotzen du Junior Enpresaren ekimenak, horregatik fakultateko bulego bat beraien esku uzten dute enpresaren egoitza bezala erabiltzeko. Hala eta guztiz ere, Magna SISEk ahal dun neurrian independenteki jarduten du.

Nahiz eta normalean proiektuak sare sozialen edo norbaiten gomendioaren bitartez lortzen dituzten, fakultateak ere, noiz edo noiz proiekturen bat eskaintzen die. Baina ez diote diru kopururik ematen, ezta aurrekonturik ere. Gainera ezin die eman, unibertsitatetik jasotzen duten dirua zerbitzuen truke jasotzen dutena izan behar baita.

Irakasleei dagokionez, irakasle batek asko laguntzen die, boluntarioki berak nahi duelako, hau da, inongo obligaziorik gabe. Baina proiektuak ez ditu gainbegiraten, beraien eskatzen ez badiote behintzat. (J. Garrido, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

4.5 E-MPRENDE SARIA

Lehenengo generazioak bidea ireki eta hainbat proiektu garatzeaz gain, aipatu gabe ezin utzi, irabazitako “E-mprende 2014” lehiaketaren bederatzigarren edizioa (urtero Ekonomisten Euskal Elkargoa eta Zitek Programak antolatua). Taldeka nahiz indibidualki, enpresa birtual baten kudeatzaile bihurtu ziren parte hartzaileak, ingurune birtualean enpresarik onena zirela frogatzeko helburuarekin. Horretarako zenbait eszenatoki sozio-ekonomiko planteatu zitzaizkien, hauen aurrean erabaki ezberdinak hartu behar zituztelarik, produktibitate eta errentabilitate zehatz bat lortzeko. Lehiaketak bost aste inguru iraun zuen, bertan 150 taldetan bildutako 350 pertsonak parte hartuz. Hala ere, finalean puntuaketa handiena lortutako bost taldek hartu zuten parte, hauen artean Magna SIS; azkenean irabazle garbia izanaz. (Mikel Niño, 2014).

Lehiaketa irabazteak ondorengoentzat ateak irekitzeko balio izan zuen, eta izena aipagarri egin zenez, agian enpresengana zabaltzeko ere balio izan zuen. Hala ere, partaideek batez ere dirua irabazteko balio izan zela iragarri zuten. (I. Gurrutxaga, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

4.6 MAGNA SISEko BAZKIDE BEZALA ESPERIENTZIA

Hasiera batean, Junior Enpresako parte izatea “handia” gelditzen dela uste dute. Ikasleak aurretik ez duenez horrelako lan bat egin galduta sentitzen da, ez daki ziur non sartu den eta zein diren bere erantzukizunak; izan ere, egindako guztiaren erantzule bihurtzen da eta fakultatea ez dago hor babesteko. Hala ere, gogoia duen edonor elkarrekin gestioatzeko gai dela pentsatzen dute, denborarekin ikasten baita.

Gainetik, lanean gustura aritzeko alde pertsonala faktore garrantzitsua dela diote, eta partaideen artean konfiantza egon behar dela, ondoren erantzukizunak banatu behar baitira beste hainbat gauzen artean. Beraien taldean aurretik batzuk ezagutzen ziren, baina beste batzuk ez eta oso harreman ona egin dute elkartean, horrek lanerako orduan positiboki eraginez.


Hala ere, fakultateko ikasleengana iristeko modua landu beharra dutela uste dute. Jende berriak fakultatera iristean ez baitu Magna SIS ezagutzen eta ez diote honen berri ematen. Lehen bulegoan ez zuten kartelik izaten, orain gutxienez atean badute eta jendeari izena ezaguna egiten zaio. Orain arte, ikasleengana iristeko erabili duten bidea posta elektronikoa izan da, nahiz eta gelaz-gela joatearen ideia bururatu ez dute aurrera eraman izan, eta ikasle berriei zuzendariak egindako aurkezpenean ere ez dute aipatzen. Ondorioz, komunikazioa elkarrearen puntu ahul bat dela esan dezakegu.

Ahultasunekin jarraituz, erreleboa ezin aipatu gabe utzi. Generazio berria sartzeko moduak zailtasun handiak ematen dituela diote, eta definitu gabe dago. Belaunaldi berriari metodologia, tresnak... pasa behar zaizkio, baina aurrekoek segituan alde egin

behar dute ikasketen amaiera dela eta. Aurretik aipatu bezala, denbora behar da ikasteko, eta ondo barneratzen denerako elkartearen uzteko garaia da. Izan ere, informatika graduaren kasuan, ez du logikarik lehenengo edo bigarren urtean Magna SISEn sartzeak, bertan egiten diren jarduerak hirugarren mailan ikasten baitira. Hala eta guztiz ere, orain elkarteko kidea den bat bere Gradu Amaierako Lanean Magna SISEko metodologia lantzen ari da, agian ondorengoentzat baliagarria izan daitekeena.

Puntu indartsua, berriz, elkarteko partaideak berak direla garbi dute. Aurkezten den jendea lanerako gogoia eta baliabideak dituztenak baitira. (J. Garrido & I. Gurrutxaga, komunikazio pertsonala, 2016ko apirilak 5).

8. Irudia: Magna SIS kideen esperientzia



Iturria: norberak egin

5. JUNE

UPV/EHUen eratuta dauden Junior Enpresen eta Gipuzkoako Campuseko Magna SISEn azterketa egin ondoren, nire fakultatean jadanik eratuta dagoen Juniorrean zentratuko naiz, eta hau JUNE Junior Enpresa da.

5.1 SORRERA

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko - Donostiako ataleko Ikasleen Elkartearen 2009ko martxoaren 23an eratu zen JUNE izenarekin, batez ere, zentroko irakasle baten ideiatik abiatuta eta zentroko proiektu batzuetan parte hartu zuten ikasle batzuen laguntzaz, ondorengo helburuekin: ikasleen enpresa ekimenak sustatzea, ikasleak ikasketaren garaian jasotako ezagupen teoriko eta praktikoak zituzten proiektuetan parte hartzea, eta ikasleak prestatzeko jarduerak antolatzea. Helburu horiek lortzeko hurrengo

jarduerak gauzatu: ekonomia eta finantza alorreko bideragarritasun planak egitea, marketin planak diseinatu eta gauzatzea, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzea, ikerketa proiektuetan parte hartzea, etab. (JUNE Elkartearen Estatutuak, 2009).

Junior mugimendua Campus mailan bakarrik zegoen, eta hau Eskola Politeknikoko Dinitek zen. Hauekin kontaktuan jarri eta beraien Estatutuak pasa zizkieten, araudiaren berri eman eta gomendioak jasoz. Honela Estatutuen zirriborroa prestatu zuten, baina formalki eratu beharra zegoen. (A. Erkizia, komunikazio pertsonala, 2016ko maiatzak 4).

Horretarako ikasle guztiei zuzendutako bilera informatibo bat deitu zuten eta honek erantzun arrakastatsua eduki zuen, gutxi gora behera ehun ikasle urreratu baitziren. Bertan proiektuaren aurkezpena egin zuten, elkarte berriko partaide izan nahi zuen guztia Batzar Eraikitzailean bertaratzeko asmoarekin. Azken hau martxoan ospatu zen hogeita lau ikaslerekin, eta han osatu zen lehenengo Zuzendaritza Batzordea, bazkide izateko 30 euro jarriaz bakoitzak (ez dira gogoratzen ziur zertarako, agian konpromiso minimo bat edukitzeko). Jarraian Elkartearen Erregistroan inskripzioa egin eta proiektuekin hasteko beharrezko tresna guztiak abian jarri zituzten.

Elkartea martxan jarri eta aste gutxira CEJE eta FVJEko presidenteen bisita jaso zuten Juneko kideek. Izan ere, kasualitatez Nazioarteko Kongresu bat zegoen Donostian hilabete horretan. Honela, hil horretan bertako partaide izatera iritsi ziren beraien proiektua Nazioarteko Junior Enpresen Batzarrean aurkeztu eta gero. Denborarekin Juneko kideren bat Euskal Federazioko Zuzendaritzan egotera heldu zen, eta horren ildotik Konfederazio Espainiarraren Aholku Batzordeko kide izatera ere bai. Horri esker beste unibertsitateetako elkarte ezberdinekin harremanak sortzeko aukera izan zuten, azkenean June CEJEko Zuzendaritzan egotea ahalbidetuz. (J. Merino, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 23).

5.2 ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA ANTOLAKETA


Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak gestionatu eta ordezkatzeko dituen ordezkari organoa da, eta bazkideak bakarrik izan daitezke bertako kide. JUNeko bazkide kontsideratzeko, berriz, interesatuak ondorengo baldintzak bete behar zituen:

- Pertsona fisikoa izatea.
- UPV/EHUko ikaslea izatea.
- 30 urte baino gutxiago edukitzea.
- Epealdi bat frogatu moduan egin behar izatea, bere jarrera eta gaitasuna baloratzeko.

Pertsona horren onarpenaren azken hitza Batzar Orokorrak zeukan, eta behin onartua izanda, interesatuak 30 euroko sarrera kuota ordaindu behar zuen banku transferentzia bidez. (JUNEren Barne Araua, 2010).

Estatutuetan zehaztutako moduan, Zuzendaritza Batzordea zazpi kidek osatu zuten:

9. Irudia: JUNE Junior Enpresaren Zuzendaritza Batzordea



Iturria: norberak egina


Kargudun bakoitzak bete behar ezberdinak beraien gain hartuz:

- **Presidentea:** bozketetan berdinketa egonez gero erabakia hartzeko boterea izango du, eta eztabaidak konpontzeaz arduratu beharko da.
- **Presidenteordea:** presidentea ez dagoenean hura ordezkatzeko obligazioa du, presidentearen eskubide guztiak hartuz.
- **Idazkaria:** aktak jaso beharko ditu (Ohiko Batzarra, Ez-ohiko Batzarra eta Zuzendaritza Batzordea); Ohiko eta Ez-ohiko Batzarren aurretik bazkideei beharrezko informazio bidali; eta barne komunikazioaz arduratu (korreo elektronikoa, sare sozialak, web orrialdea) azken hau Komunikazio arduradunaren esku uzteko aukerarekin.
- **Diruzaina:** kudeaketaren urteko informea egin eta Ohiko Batzarrean aurkeztu beharko du. Gainera, kontabilitateaz bera arduratuko da, hainbat funtzio beste pertsona baten esku uzteko aukerarekin.
- **Batzordekideak:** Zuzendaritza Batzordeko kideei lagundu beharko die beharrezko kasuetan. (JUNERen Barne Araua, 2010).

Karguen banaketa, edozein elkarteko batzarrean bezala, bakoitzak bere proposamena egin eta bozketaren bitartez erabaki zuten. (J. Merino, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 23).

Antolaketari dagokionez, hasiera batean proiektutan banatzen ziren, ondorengo puntuan sakonago azalduko dudan moduan, proiektu bakoitzeko arduradun bat esleituz. Ondoren, antolaketa modua aldatu eta ondorengo departamentutan banatzen hasi ziren: Kontabilitatea, Informatika, Giza Baliabideak, Finantzak eta Marketing (beharren arabera sail ezberdinak sortuz).

10. Irudia: JUNEren antolaketa



Iturria: norberak egina

Hala ere, aldaketa ez zela oso egokia izan esan daiteke, bi antolaketa moduak probatzeko aukera izan zuenaren iritziz, proiektutan antolatuta elkarrekin hobeto funtzionatzen baitzuen. Izan ere, jendea gustuko duen proiektuan konprometitzen baita. (I. Lekue, komunikazio pertsonala, 2016ko martxoak 8).

5.3 PROIEKTUAK

5.3.1 Nondik lortu proiektuak?

Zentroari, eta orduan Zuzendaritzako kide zen Agustin Erkiziari esker, June abian jarri eta berehala hiru proiektu izan zituzten mahai gainean.

Hasiera batean proiektu guztiak unibertsitateak proposatutakoak izan ziren. Ondoren, CEJerekin elkarlanean aritzeko proiektuak iritsi zitzaizkien beste zenbaiten artean.

Kanpoko enpresekin egindako proiektuen gehiengoa, berriz, ezagunen edo enpresarekin erlazioa zuten pertsonen bidez gauzatu ziren. Izan ere, unibertsitateko webean egoteak ikusgai egoteko aukera ematen zien, beraz ez zuten ate joka joateko beharrik izan. (J. Merino, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 23).

5.3.2 Parte hartzea

Bazkideek urtean gutxienez proiektu batean parte hartzeko betebeharra zeukaten. Egin ezean bazkide izaera galduko zutelarik, Juneren kudeaketan aktiboki parte hartzen zuten bazkideak salbu. Gainera, edozein bazkidek proiektuan parte hartzeko eskubidea zuen, Zuzendaritza Batzordeak pertsona desegokia zela pentsatzen zuenean izan ezik.

Proiektuek arduradun bat eduki behar zuten eta Zuzendaritza Batzordeari proiektuak izandako bilakaeraren berri eman Juneren asteroko bileretan. Ardura hau zuzendaritzak erabakitzen zuen nori esleitu. (JUNERen Barne Araua, 2010).


Proiektuak antolatzeko unean, gutxiengo eta gehiengo kide kopurua aintzat hartu gabe, kide bakoitzaren ezagutza, gaitasunak, interesak eta aurretik izandako esperientzia hartzen ziren kontutan; baita bakoitzaren erabilgarritasuna ere: unibertsitateko lanak, unibertsitate kanpoko lanak, ikasketak, bakoitzaren lanak elkartearen barne funtzionamenduan... (J. Merino, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 23).

5.3.3 Egindako proiektuak

2009an hasi eta 2013/14 ikastertera arte era ezberdinetako proiektuak garatu zituen Junek: batzuk unibertsitatearekin lotuak, besteak unibertsitatearekin lotura gabeak; baita Junerekin erlazio zuzena zutenak ere.

Unibertsitatearekin lotutako proiektuetako batzuk ikastertero errepikatzen zituzten eta beste batzuk, berritzaileak ziren edo ikastertero zerbait berria egiten saiatzen ziren, baina batez ere ikastaroak eta hitzaldiak izaten ziren (atal honetan hamabost proiektu inguru landu zituztenez, atal bakoitzeko esanguratsuen aipatuko dut, eta hauetaz gain ezin aipatu gabe utzi egindako aldizkaria). Unibertsitatez kanpoko proiektuak, berriz, beste enpresekin edo CEJERekin garatutakoak izan ziren. (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea – Donostia atala, 2009tik 2014ra).

11. Irudia: JUNEk gauzatutako proiektuen taldekatzea



Iturria: norberak egin

I. UNIBERTSITATEAREKIN LOTUAK:

Maiztasunez:

- Irteera Profesionaleko Jardunaldiak:

Eskola eta Ekonomisten Euskal Elkargoak jardunaldietan parte hartzeko aukera eman zien Juneri. Zenbait enpresa pribatu eta finantza-erakunde hurbildu ziren bertara, beraien esperientzia profesionala azaldu, eta ikasketak amaitu ondoren hartu daitezkeen bideak aztertzeko. Gainera, Junek ikasleen aurrean Junior Enpresa mugimendua ezagutarazteko aukera izanaz.

- Ate Irekien Jardunaldiak:

Jardunaldi hauek antolatzen aritu zen June Unibertsitatearekin batera. Bisitariei titulazioari buruzko informazioa emateaz gain, unibertsitatearen onuren berri ematen zitzairen; hauei sortutako edozein zalantza argituz (praktikak, Erasmus...). Jarraian taldeka jarri eta ikastegia erakusten zitzairen Juneren gidaritzapean.

Maiztasunik gabe:

- IKASTAROAK:

Burtsa ikastaroa: honen helburua burtsa merkatua ulertzea zen, eta ikastaroa amaitutakoan burtsan aritzeko gai izatea. Merkatuko aukerak aztertu ondoren IBMEren (Espainiako Burtsen eta Merkatuen Institutua) aldeko apustua egin zuen Junek ikastaroa ematerako orduan. Institutu honen jarduera, prestakuntza zerbitzuen antolaketan oinarritzen zen; batez ere, finantza merkatuei eta Espainiako Burtsak eta Merkatuak eratzen zituzten negozio plataformei zuzendua. Ikastaroa 20-25 lagunentzat antolatu zen, beraiek horrela gomendatuta.

- HITZALDIAK:

Paul Lataburu (arteUParte): Paul Lataburu ikasle ohiaren eskutik hitzaldia antolatu zuten, parte hartzaileak ekintzaile mugimendura motibatzeke helburuarekin. Hizlariak bere aldizkariak (arteUParte) eta izandako arrakastaz hitz egin zuen, baita enpresa sortu ahal izateko egin zuen bidez ere; dena ez dela horren erreza azpimarratuz. Hitzaldia interesgarria izan zen, publikoak Latabururekin hitz egiteko aukera izan baitzuen, eta berak ere hurbiltasunez jokatu baitzuen. Ondoren luncha eskaini zen eskolako kafetegian.

- ADI- Ekonomilari 2.0 ALDIZKARIA:

2003an ikasle talde batek irakasleen laguntzarekin “Adi Ekonomilari” aldizkaria martxan jarri zuen. Enpresa Ikasketen Unibertsitateak aldizkari baten beharra zuela ikusirik, Junek aurrekoa eredutzat hartu eta ADI-Ekonomilari 2.0 argitaratzeari ekin zion. Bi hilabetetik behin kaleratzen zen eta eskolako hainbat tokitan zegoen eskuragarri. Ale guztiek egitura berdina zuten: Donostiarekin lotutako artikuluak, ekintzaile atala, Erasmus atala, berriak, iritzi artikuluak eta kultur agenda.

II. UNIBERTSITATETIK KANPO:

Enprekin:

- Orioko Bate Bizkorak (OBB):

Edurne Fernandez Juneko bazkide eta OBB futbol taldeko jokalaria, OBBrentzat babesa, kolaborazioa eta ekipazioa bilatzeko proiektua proposatu zuen. Hainbat ate jo ondoren, Joggers kirol arropen enpresa gipuzkoarrarekin harremanetan jarri zen June, eta bilera batzuen ondoren enpresak zenbait bozeto eta aurrekontu aurkeztu zituen. Orduan taldeak ekipazioa berritzeko asmorik ez zuela, eta hurrengo urterako utzi zuten. Juniorrak nahiz eta ez ordainsaririk jaso lan honegatik, OBBren zelaiko publizitatearen parte izatera iritsi zen.

- BOSTESKU, S.L.:

Enpresa honek 2008an Babesku produktua, hau da, eskuz egindako eskularrua patentatu zuen. Junek Kepa Peñagarikano, Bostesku S.L.ko kidearekin akordioa egin zuen, produktuaren bideragarritasun ikerketan parte hartu zezan. Ikerketa hori egiteko proiektua Leartiker Ikerketa Zentroan aurkeztu zen, eta bertan materiala aztertzeari ekin zioten. 2011 erdi arte Kepa Leartikerrek hornitutako materialak probatzen aritu zen, eta Junek bi aldean bitartekari lanak egin zituen, Keparen erreakzioak Leartikerreko ikerketa taldeari igorritz.

CEJErekin:

- Google: konekta ezazu zure negozioa

CEJEk Junior Enpresa ezberdinei enpresa garrantzitsuekin batera lan egiteko aukera eman zien, besteak beste, Google, Strato eta Banco Santander. Proiektuak denda ertain eta txikiei web orrialdea sortu eta negozioa online bidez hedatzeko aukera ematen zien. Junek proiektuan parte hartu zuen: lehengo zatia Valladoliden egin zen astebeteko tailer batean, eta bigarren zatia, Banco Santanderren sukurtsal ezberdinetan; Juneren kasuan Bilbon.

III. JUNE BARNEAN:

- Web orri korporatiboa: junegune.com

Juneko informatika saileko arduradunek, informatikako ikasleekin batera web orriaren diseinuan lagundu zuten. 2009/10 ikasturtean erdaraz bakarrik jarri zuten martxan, ondoren euskara, frantsesa eta ingelesezko itzulpenak igotzeko asmoarekin.

- June berregituraketa:

2011/12 ikasturtean barne azterketa baten ondoren, antolaketa eta eguneroko jarduera dinamikoa aldatzea erabaki zen. Batetik, logotipoa aldatu zen kideen indarra eta konstantziaren erakusgarri bezala. Bestetik, “Mondragon Team Academy”rekin zenbait bilera egin zituzten motibazioa handitu eta aurrez ez zekizkiten gauzak ikasiz. Bilera horiek amaituta coach batekin harremanetan jarri ziren, eta saio batzuen ondoren, horien balorazioa zela eta zerbitzua baztertzea erabaki zuten.

- Emoiker “sormen emozionala”:

Juneko kideek Emoiker S. Koop-ekoek antolatutako ikastaroan parte hartu zuten. Honen helburua emozioak egoera ezberdinetan kudeatzen ikastea, eta hauek erabakiak hartzeko unean duten eragina jakitea zen. Ikastaroa bi astekoa izan zen, eta zazpi laguneko taldeak hartu zuen parte, Junerentzat emaitza positiboak edukiz.

- June erakusketa:

Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan erakusketak egin ziren, June ezagutzera eman eta ikasle berriak gerturatzeko helburuarekin. Erakusketak eskolako ikasgeletan egin ziren, eta erantzuna ona izan zen bazkide berriak erakarri baitziren, jende-premia hori asez.

5.4 UNIBERTSITATEAREN LAGUNTZA

Unibertsitatea izan zen mugimenduari lehen bultzada eman ziona, Zuzendaritzako kidea baitzen hasiera eman zion irakaslea. Zentro bezala hasi zen guztia, izan ere, zergatik eskaini behar zitzaion lan bat enpresa pribatu bati, UPV/EHU n egin bazitekeen? Gainera, Juniorrak aukera ematen dio ikasleari enpresa batek nola funtzionatzen duen ikasteko fiskalki, kontableki, eguneroko harremanetan... filosofia horrekin hasiera emanaz. (A. Erkizia, komunikazio pertsonala, 2016ko maiatzak 4).

Unibertsitateko Zuzendaritza Taldeak erabateko babes eman zion ekimenari, laguntza emateaz gain, hainbat baliabide eta azpiegitura erraztuz (lokala, ordenagailuak, kontsumigarriak...). (E. Allur, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 31). Horretaz gain, aurretik aipatutako moduan hainbat proiektu ere eskura jarri zizkieten.

Juneren bilakaera hurbiletik segitu zuen Unibertsitateak, zehazki Zuzendaritzak, eta hainbat irakasle aipagarri egon ziren bide hura jarrai zezaten bultzada emateaz aparte, Juneren bideragarritasunean figura garrantzitsuak izan zirenak, besteak beste, Agustin Erkizia, Iñaki Heras, Eduardo San Miguel, Maribel Sanchez... Guzti hauen itxaropenak nolabait bete zituen Junek, generazio aldaketa eta elkarteak energia positiboa galdu eta bertan gelditu zen arte. (J. Merino, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 23).

5.5 BAZKIDE OHIEN ESPERIENTZIA

Bazkide ohi batzuekin harremanetan egoteko aukera izan ondoren, hauen eskutik lortutako informazioa azalduko dut jarraian. Hauek JUNEn izandako esperientzia ezagutarazteaz gain, bizipen horietatik ateratako ideiak aurretik egindako Junior Enpresen amiarekin alderatzea da asmoa.

5.5.1 Idazkaria 2009tik 2012ra: J. Merino

Junior Enpresa honen eratzailleetako bat dugu hau. Batzar Eraikitzailean egon zen bera, eta hasierako momentutik berak nahi izan zuen bezala, bertako idazkaria izan zen.

JUNEn pasatako ia bost urteei esker, Zuzendaritzako kargu batean benetako esperientzia lortu ahal izan zuen; ziur Kutxa edo Caja Ruralean praktika simple batzuk eginez lortu ezingo zuen esperientzia. Baina behin post-gradua amaituta bide horri agur esateko momentua iritsi zitzaion, lanean hasi baitzen beste hainbat gauzen artean, JUNErentzat denborarik izan gabe.

Kide ohi honen ustetan, Junior Enpresa guztien arazo nagusia generazio aldaketa da, edozein kirol-taldetan gertatzen den moduan: behin beteranoak joanda suposatzen da ondorengoek aurrekoen ilusio berdinarekin jarraituko dutela, baina gehienetan ez da hori gertatzen. Zerbaiti hasiera ematen zaionean dena berria da, zalantza asko sortzen dira eta itxaropen handia dago; aldiz, dena egina ematen denean, eroso sentitzen da irrikarik gabe. Hori da arazo printzipala. Horregatik, ondorengo generazioei oinarri batzuk utzi ez izanaz damutzen da, aldiz utzi bazituzten generazio horiek ez ziren proiektuarekin jarraitzeko gai izan, utzikeriagatik edo gogorik ez zutelako.

JUNEren ibilbidea gertutik jarraitu zuen, urte betez hauen berri galdu zuen arte, eta ondoren aurkitu zuen egoera hauxe izan zen: lan egiteko gogoia bai, baina helburu jakin bat gabe edo zer egin garbi ez zutela. (J. Merino, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 23).

5.5.2 JUNEren eratzaleetako bat: E. Allur

JUNEren eratzaleetako bat izateaz gain, honen sorreratik Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen pertsona hau, eta kargu horretan jardun izana oso esperientzia positiboa eta errepikagarria izan zela dio.

JUNEren sorreratik lizentziatura eta gradu-ondokoak amaitu bitartean izan zen bazkide, ikasketen amaiera elkartea uzteko arrazoia izan zelarik. Bertan parte hartzeak lan-kudeaketa, gaitasun berriak, komunikatzeko tresnak, enpresa baten ikuspuntu erreala... ezagutzeko balio izan dio.

Erreleboari dagokionez, aurretik zegoen jendea mantenduz eta ondorengoei pixkanaka txanda emanaz joan zela esan du. Hala ere, esperientzia ez zen hain positiboa izan, beharrezkoa baita lidergo on bat markatuko duten figurak identifikatzea. JUNEren kasuan bere amaiera zerbait naturala izan zen, eta ez huts egiteren bat egin zelako; hau da, generazio berria behar bezala ez integratzeak ekarritako zerbait izan zela uste du. (E. Allur, komunikazio elektronikoa, 2016ko martxoak 31).

5.5.3 Lehendakaria 2012tik 2013ra: I. Lekue

Hasiera xamarrean egin zen JUNEko bazkide, gutxi gora behera 2010ean Diplomatura titulazioa burutzen ari zela, eta une horretan jende asko egoteaz gain giro ona zegoen.

Ondoren Erasmus programarekin Alemaniara joan zen ikasketak burutzera, eta handik bueltatzerako ez zen inor gelditzen JUNEn. Berak mugimenduekin jarraitu nahi izan zuen, horregatik taldea osatzeko saiakera egin zuen eta baita lortu ere. Berriro ere martxa hartzea lortu zuten (aldizkaria, proiektu ezberdinak...), baina urte bete barru, 2013/14 ikasturtean, Granadara joan zen, horretarako elkarteko presidentzia aldatu eta CEJE utziz. Alabaina, ez zuen baja eman JUNEtik eta ahal zuen neurrian haiek kolaboratzen segitzen zuen, ezin zuela jarraitu esaten zuen eskutitza jaso zuen arte. JUNEk ere ez zuen askoz gehiago iraun, jendearen konpromiso falta zela eta.

Kide ohi honen ustetan Junior Enpresaren ideia primerakoa da, proiektuak onak dira eta funtzionatzen dute, baina pertsonen aldetik formakuntza falta da elkartea gestionatzeko. Alde pertsonala ere oso garrantzitsua da, horregatik atal profesionala indartzeko atal pertsonal hori nola gestionatu ikasi behar da. Gainera, beste bazkide ohien antzera, erreleboa ez dela ongi eramaten uste du: nik amaitu dut eta banoa, edo ondorengoei laguntzen jarraitzen dut eta hauek ez dute kargurik hartu nahi. Jarraipen hori falta dela, eta horretarako ikasleek elkartearen berri izan behar dutela pentsatzen du.

Esperientzia baliogarria izan omen da orain egiten duen lanerako (formazioa ematen du, coach): batetik, Alemaniatik bueltan taldea sortu eta pertsona berriak gestionatzean esperientzia handia lortu baitzuen; eta bestetik, Google-kin egindako proiektuan ikasi zuenarekin bere enpresako web orrialdea eramateko gai baita. (I. Lekue, komunikazio pertsonala, 2016ko martxoak 8).

5.6 AMIA DIAGNOSTIKOArekin konparaketa:

Bazkide ohi hauek JUNEn bizitutakoa gainera ezagutu eta ideia bat egin ostean ateratako ondorioak jarraian dagoen taula honetan laburbiltzen dira, aldi berean lehendik egindako Junior Enpresen AMIArekin konparaketa moduko bat eginaz:

12. Irudia: Junior Enpresen AMIA eta JUNeko esperientziaren konparaketa

	JUNE	JUNIOR ENPRESAK
(+)	<p>Zuzendaritza karguan benetako esperientzia (positiboa eta errepikagarria)</p> <p>Gauza berriak ezagutu (lan-kudeaketa, gaitasun berriak...)</p> <p>Egungo lanerako baliogarria</p>	<p>Esperientzia eta ezagutza handitu</p> <p>Lan merkatuan barneratzeko modua</p> <p>Akademikoki lortzen ez diren abilezia eta gaitasunak lortu</p> <p>Kontaktu profesionalen sarea sortzeko aukera</p> <p>Enpresa kudeatu, arriskuak gain hartu gabe</p>
(-)	<p>Erreleboa</p> <p>Elkartea gestionatzeko heziketa falta</p> <p>Alde pertsonala</p> <p>Denbora</p> <p>Jendearen konpromiso faltea</p>	<p>Erreleboa/generazio aldaketa</p> <p>Spin-off bat izatera pasa</p> <p>Kideak enpresa bezeroengandik kontratatatuak</p> <p>Denbora asko eskaini behar da</p>

Iturria: norberak egina

Ikasle bakoitzak elkartean bizitutako esperientzia kontatu eta ideiak elkartu ondoren, hainbat puntu positibo eta ez hain positibo atera daitezke. Azpimarratutako puntu hauek aurretik egindako Junior Enpresaren amiarekin alderatuz, ondorengoak aipatu nahiko nituzke:

Alde **positiboari** dagokionez, AMIArekin adierazitako atal guztiak aipatu ez dituzten arren, esandakoak bat datoz: praktika soil batzuk eginaz edo klase-orduetara bakarrik joanaz lortu ezin izango zuten esperientzia lortzeko balio izan die, batez ere, Zuzendaritza Batzordeko kide izateak. Gainera, tresna eta gaitasun berriak ezagutu ahal izan dituzte, gaur egun beraien lanean erabilgarri zaizkienak.

Alde **negatiboari** dagokionean, AMIArekin atalarekin bat dagoena eta hiru kideek aipatu dutena erreleboa izan da, hitz ezberdinak erabiliz baina antzeko zerbait esanaz. Ohiko jokaerak izaten dira bakoitzak bere lana amaitzean alde egitea edo kontrako, ondorengoei lagundu eta hauek konpromisorik hartu nahi ez izatea, eta jarraipen hori falta da. Generazio berria elkartean ongi integratzeko lidergo on baten beharra dago

eta gainera, ikasleek elkartearen berri izan behar dute. Ikasle ohien ikuspuntutik puntu negatiboena erreleboa izanagatik, AMIAN bezala denbora ere aipatu dute.

5.7 JUNEREN EGUNGO EGOERA:

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Donostia ataleko Junior Enpresa honetan bertako hainbat ikaslek parte hartu ondoren, elkartea bere amaierara iritsi zen. Aurretik esan bezala 2009an sortu zen, eta 2013/14 izan zen jardun zuen azken ikasturtea, kurtso horretako memorian etorkizuneko proiektu batzuei buruzko aipamena egin zuten arren. Azken etapa horretan bazkideek ez zuten konpromisorik hartu nahi izan eta ondorioz gutxi batzuk ezin izan ziren gurdiari tira. Hala ere, arrazoi bakarra hori ez zela izan pentsa dezaket: 2014an FVJE CEJEtik “ateratzearekin” batera, June ere CEJEtik “atera” baitzen inflexio puntu bat sortuz, hots, Konfederazio Espainiarrarekin ezer jakin nahi ez izateak elkartean aldaketak egotea ekarri zuela hausnartu daiteke.

Egun, nahiz eta JUNE Junior Enpresak ez duen bere jarduerarekin jarraitzen, ez dago baja emanda; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Nagusian inskribatuta jarraitzen du, baita UPV/EHUko Ikasle Elkartearen Erregistroan ere.

6. JUNEREN BIDERAGARRITASUN PLANA

JUNERen ibilbidea eta egungo egoera ezagutu ondoren, antzemandako atal ahulak eta beste ekimen batzuk oinarri hartuz, Junior Enpresa hau abiarazteko proposamena egingo dut. Nire ustetan, zenbait atal ezinbestekoak dira JUNE aurrera ateratzeko, horregatik puntu horietatik hasiko naiz; eta ondoren, interesgarriak iruditu zaizkidan ideiak botako ditut aukera moduan.

6.1 EZINBESTEKO PUNTUAK:

Lehenik eta behin, garrantzitsuena helburua zehaztea dela iruditzen zait. Hau da, elkartu, hitz egin eta garbi eduki zer lortu nahi den, zer egin nahi den eta bakoitza zer emateko prest dagoen, zehazki: **Misioa, bisioa eta baloreak** konkretatzea.

Helburu ezberdin batzuk dituen jendea dagoela? Bideak banandu eta lan egiteko gogoia eta ilusioa duen pertsonekin elkartu. Baina hau zuzenduko duen norbaiten beharra dago, hortaz ikasleen artean **lidergoa** egon behar du. Horregatik, lan hori ondo beteko duen figurak identifikatu behar dira, elkarteari tira egin ahal izateko eta iraganean gertatu bezala paper hori beteko duena zuzendaritza ez izateko.

Hala ere, aurretik komentatu bezala, bazkide ohi baten ustetan ikasleek elkartea gestionatzeko formakuntza falta dute. Normala da eta ezin zaie elkartean sartu orduko guztia kudeatzen jakitea eskatu. Beraientzat dena berria da eta zalantza asko daude.

Alabaina, elkartean sartu behar dutenentzat **kurtso sendo** bat antolatu daiteke gutxieneko ezagutzen eta garrantzizko xehetasunen berri emateko. Kurtsoa antolatzeko unibertsitatearekin hitz egin daiteke edo Junior Enpresa Federazioen egitura horren barnean badago CEJerekin. Gainontzean, informazioa lortu ahal izateko kontaktatu dudan pertsonetako batzuk ere ziur prest egongo direla fakultatera hurbildu eta jendea prestatzeko, beraien esperientzia oinarritzat hartuz.

Unibertsitatea aipatu dudanez, **zentroarekin kontaktuan** jartzea ere inportantea iruditzen zait. Funtsezko zerbait egin ahal izateko beharrezkoa baita honen bermea eta laguntza bilatzea. Funtsezkoa esateak ez du esan nahi proiektu handia izan behar duenik, izan ere, proiektu txikiak gauzatzuz hasi behar da eta txiki horiek dira unibertsitateak luzatu behar dizkionak. Gainera unibertsitateari ere interesatzen zaio zentroan bertan dagoen Ikasle Elkartearekin harremanetan egotea; batetik, enpresa pribatu baten zerbitzuak kontratatu beharrean UPV/EHUn bertan egiteko aukera ematen diolako, eta bestetik, unibertsitate-ekintzetan esku baten beharra duenean baduelako norengana jo. Izan ere, azken urte hauetan JUNE falta izan denean beste ate batzuk jotzea egokitu zaio zuzendaritzari, batez ere, gelako ordezkariengana zuzenduz edo ikasleak kredituekin sarituz; adibide moduan, aurten Irteera Profesionaleko Jardunaldietan dinamizatzaileekin egin dena.

Horretaz gain, JUNEk proiektuak eramateko edo **antolatzeko** zuen modua azpimarratu nahiko nuke. Proiektuen aipamena egiterakoan esan dudan moduan, unibertsitatearekin lotutako proiektu batzuk maiztasunez gauzatzen baitzituzten, hau da, ikasturtero. Proiektu txikiak izateaz gain, unibertsitatearekin elkarlanean antolatutako ekintzak ziren, Irteera Profesionaleko Jardunaldiak eta Ate Irekien Jardunaldiak, hain zuzen ere. Lanketa txikikoak izangatik, proiektu zehatz batzuk maiztasunez prestatzea egoki deritzot, ikasturtero proiektu finko batzuk antolatuko direla ziurtatzen baita honela. Horregatik, proiektuen bideragarritasunari dagokionez, ordura arte jarraitutako bideari eustea proposatzen dut (ez dute zertan esandako bi proiektu horiek izan behar, beste batzuk izan daitezke), proiektu finko batzuk izatea Junior Enpresa bizirik mantentzeko aukera bat baita.

Baina hau guztia aurrera eraman ahal izateko **jendea** behar da, jenderik gabe ez baitago enpresarik, ezta proiekturik ere. Beraz, komunikazioa eta **erreleboa** lantzea ezinbestekoa da:

Komunikazioari dagokionean, informazioa ikasleei zabaldu behar zaie, nola eta noiz ordea? Nire kasuan, Graduaren lehenengo urtean aurkezpena Areto Nagusian izan genuen zuzendariaren eskutik, nahiz eta aipamen bat bakarrik izan JUNEren berri izan genuen, eta nahikoa JUNE taldea existitzen zela jakiteko. Modu hori erabiltzen jarraitu daiteke fakultatera datozen ikasle berriak informatzeko, Juneren ibilbidea laburbilduko duen bideo motz batekin lagunduta, ikasleek honen funtzionamenduaren eta proiektuen ideia bat egin dezaten. Horretaz gain, korreo bidezko kontaktuak arrakasta handirik ez duenez, eta egun gazteengana iristeko modu zuzenena Whatsapp

aplikazioa denez, kanal hau erabili daiteke ikasleak informatzeko. Baina Datuak Babesteko legedia dela eta, ikasleen telefono mugikorren zenbakiak idazkaritzak ezin dituen eman, zabaldu nahi den mezua idazkaritzara pasa eta bertakoek bidali beharko lukete. Hasiera batean, Junior Enpresa sortuta egon arren, mugimenduari jarraipena emateko interesa dutenek zuzendaritzaren laguntza beharko dute guztiari hasiera emateko, baina ondoren Junior Enpresa bera inplikatu behar dela iruditzen zait, zuzendaritzari edozein momentutan laguntza eskatuz baina inolako kargarik eman gabe.

Generazio aldaketari dagokionean, Junior Enpresen arazo nagusietako bat da, eta jakina landu beharreko puntua. Normalean bakoitzak bere etapa amaitu eta alde egiten du, edo ondorengoei laguntzen gelditzen da eta hauek interesik ez dute jartzen. Horregatik, konponbide moduan lehenengo kurtsoko ikasleengana zuzentzea gomendatzen dut, ikasle bakoitzak elkartean pasako duen denbora luzeagoa izan dadin. Honela urtero jende berria sartzen joango litzateke JUNEn, hauek pixkanaka beteranoengandik ikasten joanaz eta elkarteko martxa hartzeko denbora gehiago izanaz. Modu honetara erreleboaren zulo hori gainditu nahi da, ikasketak amaitu eta joan behar duten bazkideek arazorik gabe alde egin dezaten, eta ondorengoek oinarri batzuk izan ditzaten elkartearekin aurrera egin ahal izateko. Hala ere, kontutan izan behar da lehenengo kurtsoko ikaslearen eta hirugarren kurtsoko ikaslearen ezagutzak ez direla berdinak. Hori dela eta, aurretik zehaztu beharko da lehenengokoek zer egin dezaketen, zerren truke eta ikasleei beraiei jakinarazi; bigarrenengo eta hirugarrenengoekin berdina eginez.

Jendeaz gain, finantzaketa ere behar da. JUNE sortzerakoan 30 euroko sarrera kuota bat ezarri zuten, eta agian oraindik banku-kontuan dirua geldituko da. Horrela izanik, egoera aztertu eta elkartea martxan jartzeko dirua botatzea beharrezkoa den ikusi beharko litzateke. Aurrera begira, beste finantzatzeko modu bat Sarrikoko Club de Bolsakoek egiten dutena izan daiteke: ikasturtero bi ikastaro potente antolatzen dituzte, bakoitzean parte hartzeagatik 39 euro ordainduz (bazkideek 25 euro). Kopuru nahiko altuak hartzen duenez parte, eta ikastaroko hizlariak prezio dezente ona finkatzen dienez, beharrezko finantzaketa lortzen dute bi ekintza hauetatik.

6.2 IDEIAK:

Ezinbestekoak iruditzen zaizkidan atalak aipatu ondoren, elkartearentzat onuragarriak izan daitezkeen ideiak helaraziko ditut segidan:

IKD GAZtE

IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) eredua UPV/EHUko Gobernu Batzarrak onartu zuen aho batez 2010eko apirilean, eta martxan da, 2012-2017 Plan

Estrategikoaz geroztik. Eredu honek ikasleek beren ikaskuntzaren jabe izatea lehenesten du, eta honen arabera ikasleak prestatzeko, erakusteko eta ikasteko modu aktiboagoak eta kooperatiboagoak sortu behar dira. Horretarako, ezinbestekoak dira irakasleen prestakuntza, erakunde-politikak, ingurunearekiko harremana eta ikasleen rol berriak, lankidetzan jardun dezaten modu ordenatu eta koherentean. (<https://www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoa/ikd-gazte>).

Behin IKD zer den azalduta, IKD GAZtE proiektuan zentratuko naiz, hau baita nik hartu nahi dudana bidea:

IKD GAZtE 2011/12 ikasturtean UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren barne sortu zen proiektua da, Gipuzkoako Campuseko gradu ezberdinetako ikasleek autogestionatzen, koordinatzen eta dinamizatzen dutelarik. IKD GAZtE proiektuaren helburu nagusia, IKD ereduaren esparruan UPV/EHUko modu aktiboan ikasteko metodologietan ikasleak protagonista izatea bultzatu nahi da; ikaslea bere ikaskuntza proiektuaren protagonista bilakatzea gradu ezberdinetako jendearekin talde lanean arituz. Hala ere, helburu zehatza ekimen sena curriculumean txertatuko lukeen esperientzia bat garatzea da, unibertsitatea eta gizartearen arteko zubia eraikiz.

“Ideien bidez proiektuak eraikiz” izeneko modulua daukate, non gizarte eragile ezberdinek erronka errealak proposatzen dituzten, IKD GAZtE kideek errealitatean aplikatu ditzaten. Hauen garapena lantzeko tailerrak antolatzen dituzte ondorengo metodologiak erabiliz: fakultate ezberdinetakoez osatutako taldeak egin eta proiektua gauzatzen dute arazo errealak konpontzeko, honela ikasleek eskolan ikasitakoa praktikan jarri. Benetako beharrei erantzun nahi zaie talde lanean eta gizarte erakundeekin lankidetzan. Izan ere, gizarte eragileei zerbitzu bat emateko lan egiten da, eta aldi berean hauek prozesu osoan parte hartzen dute.

2016an erronkak proposatu dituzten gizarte eragileak ondorengoak izan dira: Bilboko udala, Emaus, Saretuz, Once, Albaola, Kalapie, UPV/EHU, San Markos Mankomunitatea eta Euskal Irrati Telebista, aurrerantzean EITB. Hauek luzatutako erronkak hobeto ulertzeko, adibide moduan EITBrena azaletik aurkeztuko dut:

ERRONKA: Lan espazio desberdinetan lan egiten duen jendearen artean interakzioa sortuko duten dinamika proposatu eta sortzea.

IKD GAZtE kideek desafio honen aurrean bi proposamen egin zituzten: lehena, elkarrekintza bultzatuko duen espazio bat egokitzea irratiko langile guztiei zuzendua; eta bestea, elkar hobeto ezagutu eta lanetik kanpoko harremanak sortzeko taula moduko bat, bertan langile bakoitzaren zaletasun eta gustuak txertatuz. Bi ideiak gustagarriak izan ziren eta biak uztartzeko aukera ere eman zien EITBk, aurrekontu arazoak zirela eta materiala ahal zen neurrian eskainiz.

Plangintza hau aurrera eraman ahal izateko zenbait saio behar izan zituzten, eta hauen artean Miramonera pare bat bisita ere bai. Azken saioan moduluaren ebaluazioa egiteaz gain, talde guztiek beraien proiektuaren aurkezpena egin zuten eta IKD GAZtE proiektuan parte hartzea baieztatzen zuen ziurtagiria banatu zitzairen.

(www.ikdgazte.wordpress.com)

Proiektuaren nondik norakoak argituta, honetan oinarrituz pare bat ideia luzatu nahiko nitzioke JUNERi:

Batetik, fakultate ezberdinetako jendeaz osatutako Junior Enpresa bat osatzea. IKD GAZtE proiektuaren kasuan modu horretan egiten dute lan eta proiektu bat aurrera eraman ahal izateko era egokia iruditzen zait, talde lana bultzatzeaz gain, ezagutza ezberdineko jendearen pentsamenduak elkartzen baitira. Honela eginkizunen edo arazoan aurrean ematen den erantzuna sendoagoa izango dela pentsatzen dut, garatzerakoan ikuspegi profesional desberdinen ekarpenak hartuko baitira kontuan. Adibidez: JUNE hartzaindegiaren proiektu batekin ibili zenean, irakaskuntzakoekin eta arkitekturakoekin batera egiteko aukera izan bazuen, ia seguru arlo guztietan garatuago zegoen proiektu bat lortuko zutela. Baina enpresaritzakoek bakarrik eginda, beraien arloari ez zegokion zatia azaletik egin beharko zuten.

Nahiz eta Juniorraren jarduerak kokatuta dagoen unibertsitateko karrerekin erlaxionatuta egon behar duela adierazi testuinguruak, legalki posible da honela antolatutako Junior bat eratzea. Hala ere, estatutueta finkatutakoa kontuan izan beharko da. Magna SISEn kasuan esaterako, estatutueta zehaztuta omen dute ezin dela beste fakultateko bat Junior horretako bazkide egin; beste unibertsitatekoekin kolaboratzea ondo dagoela baina denen artean Junior bat osatzea eromena litzatekeela uste baitute. JUNERen kasuan, estatutuak begiratu ondoren, gai honen inguruan ez du ezer aipatzen, hortaz ideia gustatuz gero posible litzateke honelako Junior Enpresa bat sortzea.

Bestetik, IKD GAZtE gizarte eragileekin lankidetzan aritzen den moduan, JUNE antzeko zerbait probatzera animatzen dut, baina enpresekin kolaboratuz. Esaterako, erronka bat marketing arloan produktu baten komunikazioa garatzea izan daiteke.

Suposatzen da gizarte eragileekin hitz egin eta akordioaren batera iritsiko direla hauek gazte taldeari erronka proposa diezaioten; hortaz, JUNEk berdina egin beharko du interesatzen zaizkion enpresekin kontaktatuz (unibertsitatearen laguntzaz baliatu daiteke, modu honetara ziur errazago egingo duela). Gainera, enpresentzat ere aukera ona izan daitekeela uste dut, gazte talde bat ezagutzeko aukera izango baitute, baita hauen lan egiteko modua ere, eta etorkizunean norbaiten beharra badute agian talde honetako norbaitez gogoratuko dira.

PRAKTIKAK

Donostiako atalak Enpresa Harremanetarako BIDE LAN izeneko bulego bat dauka, lan merkaturatze prozesua erraztuko duten ekimenak bultzatzeko. Lan Poltsaz gain, Praktiken Poltsa kudeatzen da bertan, praktikak egin nahi dituzten ikasleei aukera hori emanaz. GAUR aplikazioaren bitartez ikasleak borondatezko praktiken eskaintzak ikus ditzake, interesatzen zaion enpresa-eskaintzan apuntatuz. Enpresak ikaslea onartutakoan hitzarmena sinatzen da unibertsitate eta enpresaren artean, bertan praktiken ordu kopurua eta ordutegia zehaztuz. Praktikak egitearen truke ikasleak hautazko kredituak lortzeko aukera du, egindako hogeita bost orduko kreditu bat, eta gehienez hemezortzi eskuratuz.

Kanpoko enpresek praktikak eskaintzen dituzten moduan, JUNEk ere praktikak eskaini ditzake. Nahiz eta Junior Enpresa bat izan, enpresa batean egingo lituzken lanak egingo ditu ikasleak eta bertan zenbait gaitasun eta abilezia lortzeaz gain, trukean gradua amaitzeko beharrezkoak dituen kredituak eskuratuz. Arazoa sortuko litzateke jendea kredituak lortzeko helburuarekin bakarrik sartuko balitzake elkartean; hala ere, ez du zertan horrela izan. Izan ere, Informatika fakultateko Magna SISEkoek enpresa-praktikak luzatzen dituzte hitzarmenen bitartez, eta hauen esperientzia ezagututa, ikasleak kredituak lortzeko bakarrik ez direla kide egiten jakin ahal izan dugu. 2016an ikasle bat egon da bertan praktikak egiten, eta aurretik psikologiako bi ikasle izan zituzten master proiektua egiten. Hortaz, edukia potoloa bada Gradu Amaierako Lana elkartean egiteko aukera eskaintzea beste bideetako bat izan daiteke.

BLOG-a

JUNEk bere ibilbidean gauzatutako proiektu batzuk azaldu ditut lehenagotik, eta hauen artean ADI-Ekonomilari 2.0 aldizkaria. JUNEtik unibertsitate aldizkari baten beharra ikusten zutela eta jarri zen martxan proiektua. Aipatu bezala, aldizkaria bi hilabetetik behin kaleratzen zuten, unibertsitateko txoko ezberdinetan eskuragarri jarriz; eta ale guztiek antzeko egitura errespetatuz.

JUNEren amaierarekin batera, aldizkariaren amaiera ere iritsi zen noski. Ideia bikaina zen nire ustetan, horregatik aldizkaria falta izatearekin behar hori ase gabe dagoela iruditzen zait, hau da, informazioa helarazteko unean hutsune moduko bat dagoela. Hala ere, 2016an dauden teknologiak direla eta, ez dut uste ikasleak fakultateko pasiloetan paperezko aldizkaria irakurtzen ikusteko aukera handia izango dugunik. Ondorioz, aldizkariaren bidetik baina modua aldatuz, Blog-aren idea luzatzen dut.

Ikasleek teknologia gero eta barneratuago daukate, gero eta erraztasun handiagoa dute hauen erabileran, papera geroz eta gutxiago erabiliz. Horregatik, blog-ak aldizkaria baino etorkizun handiagoa duela iruditzen zait. Ez hori bakarrik, zerbitzua eskaini behar duenarentzat ere aukera zabalagoa ematen dio tresna honek: aldizkaria bi hilabetetik behin egitura finko batekin kaleratzen zen moduan, blog-ak maiztasun

handiago batekin publikazioak egiteko aukera ematen du (astero, bi astero, hilabetero...). Hau da, maiztasun handiago batekin eskaini daiteke egitura zehatz bat mantendu gabe, esaterako, astero gai ezberdinak landuz: aste batean Erasmus atala, hurrengoan ekintzaile atala, Graduari buruzko informazioak... albisteen edo berritasunen arabera. Gaiei dagokionez, ikasleen artean galdeketa bat ere egin daiteke zerri buruzko informazioa jaso nahiko luketen edo interesatzen zaizkien gaien berri izateko. Hori baita helburua, ikasleen interesekoa den zerbitzua eskaintzea, eta ez inork irakurriko ez duen blog bat sortzea.


JUNEk Blog-aren planteamendua aurrera eramango balu, nahi bezala antolatzeko aukera izango luke: publikazioak banaka, binaka edo taldetan bilduta. Aurreko adibidearekin jarraituz, blog-a astero gai ezberdinak landuz eguneratzea erabakiz gero, astero pertsona ezberdinak edo ezberdinek hartu dezakete ardura hori txandaturaz.

Blog-a eramateagatik, berriz, hautazko kredituak lortzeko aukera dago. Hori bai, aurretik Batzordeak jardura honen oniritzia eman behar du, bertan egiten denaren truke kredituak aitortu daitezkeela baieztatuz. Batzordearen onespena izanda, ekintza hau kultura-jardueren barruan sartuko litzateke, eta atal honen informazioa begiraturaz gero, ikasturtero gehienez hiru kreditu lortu daitezkeela ikusiko dugu. Mota honetako jardueretan normalean hogeita bost orduko kreditu bat ematen da, baina unibertsitatearekin zehaztu beharko litzateke kasu honetan zenbat orduko beharko liratekeen kreditu bat lortzeko. (*Ikusi 4. ERANSKINA*). Ondoren, ikasle bakoitzak zenbat ordu pasa dituen apuntatu beharko du, eta finkatutakoaren arabera egokitzen zaizkion kredituak jasoko ditu.

www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/aitorpenak-baliozkotzeak-eta-homologazioak

JUNEren bideragarritasun planarekin amaitzeko, aurkeztu ditudan puntu guztiak ondorengo eskeman laburbilduko ditut, buruan ideiak garbiago gelditzeko:

13. Irudia: Bideragarritasun-planaren eskema



Iturria: norberak egina

7. ONDORIOAK

Junior Enpresena mundu guztian hedatuta dagoen mugimendua da. Ikaslea eta lan-munduaren arteko lotura sendotzea du helburu, unibertsitatean ikasitako hori praktikan jarritz. Enpresa modukoak direnez, klase teorikoetan ikasitakoaz gain beste zenbait gaitasun lortzeko aukera ematen dute, honela ikasketak amaitu eta lan mundurako bidea erraztuz.

Horregatik, Ekonomia eta Enpresen Fakultateko Donostiako atalean ere aukera hori ustiatu beharko litzatekeela uste dut, posiblea baita. Jadanik elkarteak sortuta egotea aurrera pausu bat izanik, hasiera eman eta martxa hartzea izango litzateke hurrengo erronka. Hori bai, ikasleak eta unibertsitatea bat eginez eman beharreko jauzia da, bi aldeak baitira onuradunak: batetik, ikasleari enpresan benetako esperientzia bizitzea eta gaitasun berriak lortzea interesatzen zaio, lan mundurako baliogarri egingo zaiolako ate gehiago irekiz; eta bestetik, unibertsitatea ere ikasleak fakultatetik gero eta garatuago ateratzearen interesdun da, beste hainbat gauzen artean.

Junior Enpresen testuingurua ikertzean, besteak beste, zer diren, nola eratzen diren, nola funtzionatzen duten, eta zein diren hauen abantaila eta desabantailak; bi ikuspegi ezberdinekin topatu naiz: lehenengoa marka nazionalarekin dago lotua, eta bigarrena Ikasle Elkarte soilekin. Hau da, Junior Enpresei buruzko informazioa bilatzerakoan ez da zuzenean esaten bi ikuspegi daudela, baina iturri ezberdinetan kontsulta eginaz ondorio horretara iritsi naiz, nire sena erabiliz, informazioa aztertu eta kontrastatuz. Gainera, ikasketetan lortutako hainbat ezagutza aplikatuz, bildutako abantaila eta desabantailak AMIA diagnostikoa eginez laburbildu ditut, jarraian dauden hainbat puntu AMIA honekin erlazionatuz. Junior Enpresen abantaila nagusia, elkarteetan lan eginez eskuratzen diren abilezia eta gaitasunak dira, ikasketak burutu bitartean esperientzia lortzeko aukera emanez, eta honela lan-mundurako sarrera erraztuz. Elkartearen zerbitzuak kontratatzeak ere bere alde onak baditu, batez ere, zerbitzua merkeagoa izatea eta parte-hartzaileak gazte dinamikoak izanik, ideia berriak hedatzea. Baina desabantailak ere baditu, oro har, ikasketez gain elkarteari denbora asko eskaini behar izatea, eta generazio aldaketa gainditzeko zailtasunak izatea, elkarteak bertan behera gelditzeko arriskuarekin.

Bigarrenik, UPV/EHUen eratuta dauden Junior Enpresak aztertu ditut, jarraian Gipuzkoako Campuseko batean sakonduz. UPV/EHUko Elkartearen Erregistroan eta beste hainbat iturritan egindako kontsulten arabera, egun Gipuzkoako eta Bizkaiko campusetan funtzionamenduan dauden Junior Enpresak topatzeko aukera izan arren, Arabako campusean ez da egokiera hori ematen. Bi campusetan guztira sei elkarte aurki daitezke, Gipuzkoakoan hiru eta Bizkaikoan beste hiru, azken hauek FVJEko partaide izan gabe. UPV/EHU mailako informazio hau lortzeko zenbait zailtasunekin topatuagatik, irtenbidea bilatzeko gai izan naiz jende ezberdinarekin kontaktatuz. Izan ere, UPV/EHUko Erregistroa jardun-esparru ezberdinetako elkarteek osatzen dute, eta

kasu batzuetan ez da ondo zehazten Junior Enpresa edo zein beste sektoretakoa den, hortaz, banan-banan zalantza nuen hauekin korreo bidez kontaktatzea izan da eman diodan konponbidea. Bestalde, Gipuzkoako Campuseko Junior batean sakontzeko, eratuta dauden hiru Juniorrekin kontaktatu arren, Magna SISEkoek bakarrik erantzun zidaten beraiekin elkartzeko proposamenari baiezkoa emanaz. Elkarrizketaren aurre-lanketa eta elkarrizketa bera erraztasunez egin ditut, izan ere, Graduan zehar hainbat lan egiteko elkarrizketak egitea egokitu zaigu. Beraz, aurretik lortutako gaitasunak erabiltzeko baliogarria izan da.

Azken helburua, JUNE Junior Enpresa abiarazteko bideragarritasun plan bat aurkeztea izan da, elkarrearen sorrera, bilakaera eta egungo egoeran oinarrituz. Informazio hori lortzeko JUNeko bazkide ohiekin kontaktatu dut, aurrez-aurre eta korreo bidez. Beraz, harremanak egiteko eta jende berria ezagutzeko balio izan dit lanak. Gainera, lortutako informazio guztitik beharrezkoak ditudan datuak antzematen jakin dut; eta datu horietan oinarritzeaz gain, logika eta irudimena landuz JUNEri proposamena egiten ere bai, bideragarritasun-plana bi zatitan banatuz:

- Lehenengo zatian, elkartea aurrera ateratzeko ezinbesteko iruditzen zaizkidan puntuak sakondu ditut:
 - Misioa, bisioa eta baloreak zehaztea.
 - Elkartea zuzentzeko lidergo on bat egotea.
 - Elkartea gestionatzeko formakuntza falta dela eta, kurtso sendo baten antolaketa.
 - Zentroarekin harremanetan jartzea, honen bermea eta laguntza bilatuz.
 - Proiektuak antolatzeko aurretik zuten moduarekin jarraitzea, hau da, proiektu txiki eta finkoak, elkarrearen jarraipena nolabait ziurtatuz.
 - Komunikazioa eta erreleboa lantzea, batez ere, lehenengo kurtsoko ikasleengana zuzenduz.
 - Finantzaketa lortzea sarrera kuoten bidez edo ikastaroak antolatuz.
- Bigarren zatian, Juniorarentzat interesgarriak izan daitezkeen ideiak luzatu ditut:
 - IKD GAZtE proiektuan oinarrituz, fakultate ezberdinekoek osatutako Junior Enpresa bat osatzea, eta enpresekin erronkak gauzatzea.
 - Beste enpresek egiten duten moduan praktikak eskaintzea ikasleei trukean hautazko kredituak emanaz, eta edukia potoloa izanez gero, Gradu Amaierako Lana ere bai.
 - Aurretik egindako aldizkariaren ideia euskarri hartuz blog-a garatzea, bertan lan egiten dutenei trukean hautazko kredituak emanaz.

Hortaz, lanaren hainbat atal garatzeko jende ezberdinarekin harremanetan jartzea ezinbestekoa izan da, informazioa lortzeko bide garrantzitsuena izan baita; batzuekin elkarrizketa sakonagoak eta beste batzuekin azaleko informazioa partekatuz.

Ondorioz, elkarte hauei buruzko ezagutza handitzeko balio izan dit lanak, orain arte ez bainuen Juniorren berririk. Gaia oso interesgarria iruditu zait, batez ere, ikasketak burutzen ari diren ikasleentzat, aprobetxatu beharreko aukera bat baita. Izan ere, egindako azterketaren ondoren, Junior Enpresa bat eratzea bideragarria dela ondorioztatu dut, ikasleen garapenerako interesgarria izateaz gain, unibertsitatearentzat ere interesgarria baita, ekintzak garatzeko nahiz bertako ikasleentzat heziketa gehigarri bat suposatu dezakeelako.

Beraz, ikasketak burutzen ari diren ikasleentzat aprobetxatu beharreko aukera bat dela diot, nik aukera izandakoan ez bainuen egin. Egia da ni Graduarekin hasi nintzenean JUNE izeneko talde baten berri izan nuela, baina hortik haratago ez nuen honen inguruko informaziorik, ez zein motatako taldea zen, ezta zer egiten zuten ere. Ziur taldeaz gehiago jakiteko gogorik jarri ez nuelako izan zela, baina baita Juniorrak bere burua behar bezala ezagutaraztera eman ez zuelako ere; bestela nola ulertu fakultateko ikasle batek bertako Juniorraren berri ez izatea? Hori dela eta, ideia hau aurrera eramateko erabakia hartzean, kontutan izan komunikazioaren erabateko garapena beharrezkoa dela, jenderik gabe ez baitago elkarerik. Orain aldiz, gaiaren ezagutza maila altuagoarekin, JUNEn parte hartu ez izanaz damutzen naizela esan dezaket, karrera amaitu eta lan-munduaren ateetan "biluzik" sentitzen bai naiz, eta elkartean lan egin izan banu, zenbait atalen gutxieneko garapena lortua izango nuela uste baitut: bezeroekin harremanak, enpresaren aurrean dauzkazun erantzukizunak...

Amaitzeko, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua burutzen ari diren ikasleak animatu nahiko nituzke Junior mugimendua bultzatu eta JUNE elkartearen abiarazteko, egun asko aipatzen den ekintzaile grina hori garatzeko bide egokia baita.

8. BIBLIOGRAFIA

Basquelaw Abogados. (2016). *¿Qué es una Junior Empresa?*. Eskuratze-eguna: 2016ko martxoa. Basquelaw Abogados-en webgunea: <http://basquelawabogados.com/es/que-es-una-junior-empresa/> helbidetik eskuratua.

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea – Donostia atala. (2009tik 2014ra). *Jardueren memoria*. Eskuratze-data: 2016ko ekaina. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea – Donostiako atala-ren webgunea: <http://www.ehu.es/eu/web/enpresa-donostia/jardueren-memoria> helbidetik eskuratua.

Federacion de Junior Empresas del Sur –FJESUR. (2013). *Guia Junior Empresa*. Eskuratze-eguna: 2016ko martxoa. Iturria: Federacion de Junior Empresas del Sur webgunea: http://www.fjesur.org/downloads/guia_junior_empresa.pdf

Garrido, I. & Gonzalez, R. (2012). *Junior Empresas: formacion empresarial dentro de la Universidad*. Eskuratze-data: 2016ko martxoa. Iturria: Lexnews-en webgunea: <http://www.lexnews.es/junior-empresas-formacion-empresarial-dentro-de-la-universidad/>

Granadako Unibertsitatea. (2014). *Emprendimiento, Desarrollo y Junior Empresas*. Eskuratze-eguna: 2016ko apirila. Granadako Unibertsitatearen webgunea: <http://cpep.ugr.es/pages/orientacion/emprendimiento-desarrollo-y-junior-empresas?theme=pdf> helbidetik eskuratua.

Ikastravelling. (2015, maiatzak 1). Ikastravelling-eri elkarrizketa <https://soundcloud.com/ikastravelling-bidaiak/entrevista-ikastravelling-1-05mp2>-tik berreskuratua.

Junta Directiva CEJE. (2013). *Informacion Nacional/Internacional Junior Empresa*. Eskuratze-data: 2016ko martxoa. Iturria: CEJE-ren webgunea: <http://www.um.es/ceje/application/file/documentos-publicos/Europa/Informacion%20Nacional-Internacional%20Junior%20Empresa.pdf>

Junta Directiva CEJE. (2013). *Resultados Comision Europea*. Eskuratze-eguna: 2016ko apirila. CEJE-ren webgunea: http://www.ceje.org/doc/resultados_ce helbidetik eskuratua.

Lopez, I. (2014, abenduak 14). Ioba Lopezeri elkarrizketa https://www.youtube.com/watch?v=bbq_Hg-aEmw –tik berreskuratua.

Niño, M. (2014). *El equipo de Magna SIS, la Junior Empresa de la Facultad de Informatica de San Sebastian, gana el concurso "E-mprende 2014"*. Eskuratze-eguna: 2016ko maiatza. Mikel Niño-ren bloga: <http://www.mikelnino.com/2014/04/magnaSIS-junior-empresa-facultad-informatica-san-sebastian-gana-concurso-emprende2014.html> helbidetik eskuratua.

ORMA – Consultoria jurídica y empresarial. (2012). *Marco Normativo, Ambito Contable y Tributario*. Eskuratze-eguna: 2016ko martxoa. Iturria:

<http://www.um.es/ceje/application/file/documentos-publicos/Gestion/Marco%20Normativo,%20ambito%20contable%20y%20tributario.pdf>

Sereno, E. (2013). *Las ventajas de una Junior Empresa*. Eskuratze-eguna: 2016ko apirila. Iturria: Empresariados-en webgunea: <http://empresariados.com/las-ventajas-de-una-junior-empresa/>

Iturri hauetaz gain, Junior Enpresen webguneak ere erabili ditut beraien osotasunean, baita UPV/EHUren eta Eusko Jaurlaritzaren webgunea ere, besteak beste hauek:

www.ceje.org

www.bindigo.es

www.komorebibilbao.com

www.ikastravelling.com

www.magnasis.com

www.dinitek.com

www.fabrica-t.com

www.ikdgazte.wordpress.com

www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoa/ikd-gazte

<http://www.ehu.eus/eu/web/ikasle-kontseilua/ikasleen-elkarteak-nola-sortu>

www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/aitorpenak-baliozkotzeak-eta-homologazioak

http://www.iusap.ejgv.euskadi.eus/r47-educireg/eu/contenidos/informacion/ra_aso_constitucion/eu_registro/constitucion.html

ERANSKINAK

1. ERANSKINA:

Kontaktuan egon naizen pertsonak ondorengoak izan dira, 2016an kargu edo paper hauek dituztelarik, eta aipamenen ondoren elkarrizketak egiteko erabilitako gidoiak atxiki ditut:

- Javier Merino, JUNE Junior Enpresako kide ohia.
- Irati Lekue, JUNE Junior Enpresako kide ohia.
- Erlantz Allur, JUNE Junior Enpresako kide ohia.
- Agustin Erkizia, Unibertsitateko irakaslea eta JUNERen sorreraren bultzatzaileetako bat.
- Jon Garrido, Magna SIS Junior Enpresako kidea.
- Ioritz Gurrutxaga, FVJEko idazkaria eta Magna SIS Junior Enpresako kidea.
- Ismael Novo, CEJEko Lehendakariorde Internazionala.
- Julene Martin, CEJEko International Manager.
- Josune Gorostiaga, ZITEK Bilboko Administrazio laguntzailea.
- Alexander Ramos, Ikastravelling Junior Enpresako kidea.
- Taid Mac Cathy, El Vino Azul enpresako kidea.

MAGNA SIS

- **ANTOLAKETA:** proiektuetan antolatzen da (proiektu bakoitza modu independentean)
 - Nola erabakitzen da proiektu bakoitzean nor parte hartu? Boluntarioki aurkezten da jendea gustu edo abilezien arabera?
 - Arduraduna/zuzendariaren aukeraketa? Zer da bere egitekoa?
 - Antolaketa beste modu batean egitea planteatu izan da? Edo antolaketa modu honegatik funtzionatzen du ongi zuen ustez?
 - Zuzendaritza Batzordeko kideen kopurua, kargu bakoitzaren egin beharra... hau elkarte bakoitzaren arabera da? Estatuetan ezarritakoaren arabera?
- **TALDEKIDEAK:**
 - Zuen web orrian ikusi dudanez orain zaudeten guztiak 2015eko uztailetik zarete kide. Zuek hasi zinetenean aurrekoen laguntza jaso zenuten? Nola izan zen erreleboaren etapa hori?
 - Taldea berritu edo jende berriarekin elkartu zarete (twitter urtarrila). Taldea sendotzeko edo erreleboa hartu aurretik irakasteko?

▪ **PROIEKTUAK:**

- Magna Ordutegiak: EHUko beste fakultateetara hedatzea aurreikusten zenuten. Egin da?
- Vincula Entorno: Dinitik JEREkin elkarlanean aritu zineten. Nola moldatu zineten lanerako? Elkarrekin lan gehiago egin dituzue? Zertan da baliogarria beste JE batekin lan egitea?
- PlaceForMe aplikazioa: Web orrialdean ez dago honen informaziorik, twitterren ikusi dut (3/4 kurtsoko asignaturen eskaera estimatzeko). Zertarako balio du? Norbaitek egindako enkargua izan zen?
- RooMate (pisukideak bilatzeko web orrialdea) zuen azken proiektua. Martxan da edo noiz jarriko da martxan? Nori zuzendua? Azaldu pixka bat.
- Proiekturen bat aurreikusita? Asko gustatuko litzaizukeen proiektu bat?
- Proiektuak nondik jaso?

▪ **ZUEN AURREKARIEI DAGOKIONEZ:**

- 2014ko uztailleko albiste batean irakurritakoa: Ikasle Kontseiluak antolatutako Ikasle Topaketan Magna SIS kontratatua izan zen (web orria egiteko). Gorka Maiztegi bertako presidente eta Ikasle Kontseiluko presidenteordea izanik, arau-hausteren bat burutu ote zuen. Zuek oraindik ez zineten kide baina zerbait badakizue? Zer gertatu zen azkenean?
- E-mprende Saria (enpresa birtualen kudeaketa): honen berri izango zenuten, zuek sartu baino zerbait lehentxeago baitzen. Saridunak izateak atak ireki dizkizue edo zerbaitetarako balio izan dizue ondorengoei? Aurrekoen esperientzia entzun baduzue, zertarako balio izan zien?

▪ **INFORMATIKA FAKULTATEA:**

- Honen laguntza duzue. Bulegoa uzteaz gain zein modutan laguntzen dizue?
- Zein motako enkarguak egiten dizkizue fakultateak?
- Irakasleak: nola laguntzen dute? Nolako aholkularitza? Proiektuak gainbegiratzen dituzte?

▪ **CEJE:**

- CEJE eta FVJEn artean gertatutakoa.
- Junior Enpresa marka izanik CEJEtik aterata, marka hori galduko duzu eta ez zara JE? FVJEn egotea ez da nahikoa? Orduan Elkartea bat izango zara? Helburu berdinak izango lituzke?
- Magna SIS CEJEn dago? Ez bada horrela, FVJE CEJEtik atetzearekin batera atera zineten? Zergatik?
- Posible litzateke unibertsitate ezberdinekoen artean JE sortzea? Irakurri dudanez JE kokatuta dagoen unibertsitateak eskaintzen dituen karrerekin erlazionatuta egon behar dute.
- Zenbat JE daude UPV/EHUn?

▪ **BESTE ELKARRIZKETEKIN LOTUZ:**

- Uste duzue nahikoa formakuntza duzuela elkartearen gestionatzeko?
- Alde pertsonalari dagokionez, eragiten du zuen lanean? Saiatzen zarete kanpoan uzten edo guztiak oso ongi eramaten zarete?
- Nola iristen zarete jende berriarengana edo zein da erabiltzen duzuen estrategia? Ikasle berriak fakultatera iritsi eta Magna SISEn berri badute?
- Jendea fakultatean hasi eta ez du ezagutzen magna sis. Email bat bidali diote ikasle guztiei praktiken berri emateko. Ez dute zuzendaritzarekin horrelako harremanik eta horregatik hasierako ekitaldian ez dute aipatzen.
- Zergatik uste duzue funtzionatzen duela horren ongi?
- Jendea konprometitzeko prest ikusten duzue?
- Magna SISEko puntu ahula edo ez duena hain ongi funtzionatzen? Puntu indartsuena aipatzekotan?

▪ **BESTE BATZUK:**

- Zerbitzuen prezioan nola edo zerren arabera finkatzen dira? Nola erabakitzen dituzue?
- Taldean emakumezko bakarra dago. Zergatik ez direla animatzen uste duzue?
- Enpresa-praktikak ere eskaintzen dituzue. Nola da? Ikasleak motibatze modua da agian? Arrakasta du?
- Junior Enpresen desabantailak aipatzekotan?
- Magna SISEko diruarekin zer egiten duzue?
- Junior enpresa bat klub de bolsarekin lotu daitekeela uste duzue?

CEJE

- Junior Enpresa marka bat dela esango zenuke? edo Ikasle Elkarte batek bere buruari jarri diezaiokeen izen moduan ikusten duzu?
- Aurrekoarekin lotuta: Junior Enpresa bat CEJEtik ateratzean, elkarte soil bat izango litzateke edo oraindik Junior Enpresa izaten jarraituko luke?
- FJESURen lan batean topatu dudanez, ondorengoa litzateke Junior Enpresa bat sortzeko pausuak. Pausuak egokiak direla uste duzu? Baten bat badago saltatu daitekeena, edo guztiak bete behar dira?
- Juniorrentzat ez dago lege zehatz bat, elkarten legea aplikatzen baitzaio. Zuzendaritza Batzordeko kide kopurua, bakoitzaren egitekoa... nonbait zehazten da edo elkarte bakoitzak erabakitzen du bere Estatutuetan?
- CEJEk zer eskaintzen dio Junior Enpresa bati? CEJEn egon gabe lortuko ez lukeen zer lortu dezake honelako ikasle elkarte batek CEJEn eskutik?
- Ondorioztatu dudanez, Junior Enpresen ahuldadeetako bat erreleboa da. Nola landu daitekeela uste duzu? Edo CEJEn aldetik zerbait egiten da?
- Ahuldadeak aipatzen hasita. Junior Enpresen zein abantaila eta desabantaila aipatuko zenituzke?
- Zer gertatu zen CEJE eta FVJEn artean, azken hau Espainiar Konfederaziotik ateratzeko?

- Eta Gipuzkoako Junior Enpresa batek CEJEko partaide izan nahi badu, nola egin behar du? FVJE CEJEko parte ez bada, beste Federazio bateko kide egin beharko zen?
- Galderez gain zerbait komentatu nahiko bazenu...

JUNEKO KIDE OHIAK

▪ SORRERA:

- Nondik sortu zen ideia edo norik eman zuen hasierako pausua eta noren laguntzaz? Nola enteratu zinen zu?
- Nori eman zitzaion parte hartzeko aukera?
- Nola hartu ziren lehenengo erabakiak, hau da, behin sortuta nondik hasi zineten lanean?
- Behin sortuta, FVJE eta CEJEko kide egin zineten? Edo nola izan zen?
- Nola ikusi zenuen zure burua elkartean? Hau kudeatzeko moduan?
- Irakasleren bat aipagarri?
- Unibertsitatearen laguntza nolakoa?
- JUNE izena nondik dator edo zergatik eta nola aukeratu zenuten izen hori?

▪ PROIEKTUAK:

- Sortu eta hasierako proiektuak: Ate irekien Jardunaldiak (martxoa), Lan aukerei buruzko Jardunaldietan parte hartzea (apirila), Akitania-Euskadi landiketzarako funtsa (ekaina), web korporatiboa (2009/10)... Guztiak unibertsitateak proposatutakoak?
- Proiektu bakoitzean nahi adinak hartu zezakeen parte? Ez bada horrela nola erabakitzen zenuten?
- Proiektuetan ardurak nola banatzen ziren?
- Enpresengana nola hasi zineten zabaltzen?

▪ ANTOLAKETA:

- Hasieratik proiektuetan antolatzen zineten? Gustu/abilezien arabera banatzen zineten?
- Nola erabaki zenuten bakoitzaren kargua (Zuzendaritza Batzordea)? Suposatzen dut gehiengoaz, baina hasieran boluntarioki aurkeztuz?
- Zu diruzain zinen. JUNEn egon zinen denboran mantendu zenuen kargu hori? Nola moldatzen zinen?

▪ AGURRA:

- Noiztik nora egon zinen Junen?
- Ikasketen amaieragatik edo zergatik utzi zenuen?
- Zuek joaterakoan jende berria sartu zen edo lehendik zegoena gelditu zen? jende berria sartu bazen, erakutsi zenien? Azaldu errelebo etapa hori.

▪ **ESPERIENTZIA:**

- Zertarako balio izan dizu JUNEn egoteak?
- Ikasleren bat animatu beharko bazenu, nola emango zenioke bultzada hori edo nola salduko zenioke?
- Nola enteratu zinen JUNEk ez duela funtzionamenduan jarraitzen? Zer pasa zitzaizun burutik?
- Orain lan munduan esperientzia duzula, zertan huts egiten zenutela ikusten duzu? Edo zein zen zuen puntu ahulena?
- Galderez gain zerbait komentatu nahiko bazenu...

2. ERANSKINA: UPV/EHUko Elkarten Erregistroan izena emateko eskaera orria.

UPV/EHUko Elkarten Erregistroan izena emateko eskaera

Solicitud normalizada de inscripción en el Registro de Asociaciones de la UPV/EHU

Elkartearen datuak: / Datos de la asociación:

Elkartearen izena / Nombre de la asociación			Siglak / Siglas	IFK / CIF
Elkartearen egoitza / Domicilio social			Herria / Localidad	PK / CP
Tel.	Faxa	E-mail	Elkartea noiz osatu zen / Fecha constitución	
Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroaren inskripzio zk. Nº inscripción en Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco		Kasua balitz, beste erregistro publikoen inskripzio zk. Nº inscripción en otros registros públicos (si es el caso)		
Elkartearen kide kopurua Nº total de miembros de la asociación	UPV/EHUko ikasle kopurua Nº de estudiantes de la UPV/EHU	UPV/EHUko ikasle ohiaren kopurua Nº de ex alumnos-ex alumnas de la UPV/EHU		
Banketxea / Entidad bancaria		Kontu korrontea (20 digituak jarri) / Cuenta corriente (poner 20 dígitos)		

Ordezkoa (agiri honen aurkezlearen datuak): / Representante (datos de la persona que presenta este documento):

Izen-abizenak / Nombre y apellidos			NAN / DNI - IFK / CIF	
Helbidea / Dirección			Herria / Localidad	PK / CP
Tel.:	E-mail		Elkartean duen kargua / Cargo que ocupa en la asociación	
Ikasketak / Estudios			UPV/EHU-arekiko gaurko lotura / Vinculación actual con la UPV/EHU	

Jardun-eremua: / Ámbito de actuación:

<input type="checkbox"/>	UPV/EHU			
<input type="checkbox"/>	Ikastegia / Centro universitario	Fakultatea -Eskola / Facultad-Escuela:		
<input type="checkbox"/>	Campusa / Campus	<input type="checkbox"/>	Araba/Álava	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	Bizkaia	<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>
				Gipuzkoa

Jardun-esparrua: / Sector de actividad:

<input type="checkbox"/>	Kultura eta Kirola / Cultural-Deportiva	<input type="checkbox"/>	Ordezkaritzako elkartea (sindikala) / De representación (sindical)
<input type="checkbox"/>	Zientzia eta Ikerkuntza / Científica-Investigación	<input type="checkbox"/>	Junior Enpresa / Junior Empresa
<input type="checkbox"/>	Boluntariotzat / Voluntariado	<input type="checkbox"/>	Beste esparrua (zehaztu) / Otro sector (especificar):

Elkartearen mota: / Tipo de Asociación:

<input type="checkbox"/>	EHUko Ikasleen Elkartea / Asociación de estudiantes de la UPV/EHU	<input type="checkbox"/>	Ikasle ohien elkartea / Asociación de antiguas alumnas y alumnos
--------------------------	--	--------------------------	---

Aurkezten dituen agiriak: / Documentación que presenta:

<input type="checkbox"/>	Elkartearen Estatutuak / Estatutos de la Asociación
<input type="checkbox"/>	Eskatzailearen NANaren fotokopia / Fotocopia del DNI de la persona solicitante
<input type="checkbox"/>	Elkartea EAren Elkartearen Erroldan edo izaera publikoko beste Elkartearen Erregistroaren batean izena emanda dagoela erakusten duen ziurtagiriaren kopia bat / Copia del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones de la CAPV u otro Registro de Asociaciones de carácter Público
<input type="checkbox"/>	Elkartea osatzen duten pertsonen kopurua. UPV/EHUko ikasle diren bazkideen zerrenda eta, hala behar izanez gero, UPV/EHUko ikasle ohien zerrenda, izena, abizenak eta NAN zenbakia berariaz adierazita / Número de personas que integran la asociación. Relación de socios y socias que sean estudiantes de la UPV/EHU y, en su caso, ex alumnado de la UPV/EHU, con indicación expresa del nombre, apellidos y DNI
<input type="checkbox"/>	Zuzendaritza Batzordearen osaera, eta batzordekideen kokalekua, telefonoa eta haiekín harremanetan jartzeko helbidea / Composición de la Junta Directiva, debiendo facilitar la localización de sus miembros, el teléfono y la dirección de contacto
<input type="checkbox"/>	Dagokion Ikastegiaren edo Campusaren txostena, elkartearen egoitza ikastegi batean edo UPV/EHUko lokal batean jartzeko / Informe del Centro o, en su caso, Campus correspondiente, para el establecimiento de su Sede en un Centro o local de la UPV/EHU (1)
<input type="checkbox"/>	Elkartearen jarduera eremuaren arabera, dagokion Ikasleen Kontseiluaren txostena / Informe del Consejo de Estudiantes que corresponda según el ámbito de actuación de la asociación (1)
<input type="checkbox"/>	Jarduera-egitaraua / Programa de actividades
<input type="checkbox"/>	UPV/EHUko Elkartearen Erregistroan izena emateko eskaera normalizatua / Solicitud normalizada de inscripción en el Registro de Asociaciones de la UPV/EHU
<input type="checkbox"/>	Beste bat (adierazi zein) / Otro, especifica cuál:

(1) *Txostenak eskatu eta hilabeteko epean ez bada txostenik jaso, nahikoa izango da eskari idatzia aurkeztea, behar bezala erregistratua. Si transcurrido un mes desde la presentación de la solicitud de estos informes no se obtienen los mismos, se entenderá suficiente presentar el escrito de dichas solicitudes debidamente registradas*

OHARRA: *Ikasleen Errektoreordetzak hiru hilabeteko epean jakinarazpena bidaliko du, eskari honetan harremanetarako adierazitako helbidera, adieraziz elkartea UPV/EHUko Elkartearen Erregistroan sartu dela; bestela, izena emateko eskaria ukatuz gero, erabaki arrazoitua emango du.*

NOTA: *El Vicerrectorado de Estudiantes notificará en el plazo máximo de tres meses, en el lugar al efecto indicado en esta solicitud, que se ha procedido a la inscripción correspondiente en el Registro de Asociaciones de la UPV/EHU o, en su caso, la resolución denegatoria debidamente motivada.*

Lekua eta data / Lugar y fecha

Sinadura / Firma

Datuen babesa	Protección de datos
<p>Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedaturikoaren arabera, inprimaki honetan adierazitako datu pertsonalak UPV/EHUko ikasleen Errektoreordetzaren jabetzako fitxategietara sartuko dira, eta elkartearen erregistroa kudeaketari dagozkion zereginetarako eta zure eskabideari erantzuteko baino ez dira erabiliko.</p> <p>Datuak eskuratu, aldatu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabil ditzakezu Ikasleen Errektoreordetzara idazkia bidalita; hala nahi baduzu, inprimakian jasotako datuen helburuari, tratamenduari eta erantzukizunari buruzko argibide zabalagoak eskatzera.</p>	<p>Le informamos que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, los datos de carácter personal facilitados en este impreso se incluirán en ficheros de titularidad del Vicerrectorado de Alumnado de la UPV/EHU y se utilizarán para realizar las tareas propias de gestión del registro de asociaciones, así como para dar respuesta a su solicitud.</p> <p>Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito al Vicerrectorado de Alumnado dónde también podrá, si lo desea, dirigirse para ampliar la información sobre la finalidad, tratamiento y responsabilidad de los datos recogidos en este impreso.</p>

3. ERANSKINA:

JUNE 2016an oraindik Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Nagusian inskribatuta dagoela ziurtatzen duen dokumentua.



NIK, ITZIAR LIZEAGA ROMEROK, HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILARI ATXIKITAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ELKARTEEN ERREGISTRO NAGUSIKO ARDURADUNAK, HONAKO HAU ITZIAR LIZEAGA ROMERO, RESPONSABLE DEL REGISTRO GENERAL DE ASOCIACIONES DEL PAIS VASCO ADSCRITO AL DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA

EGIAZTATZEN DUT/ CERTIFICA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN(e)ko (GIPUZKOA) ASOCIACIÓN "JUNE" JUNIOR EMPRESA izeneko erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartein Erregistro Nagusian inskribatuta dagoela 2009(e)ko ekainaren 16(e)an emandako Ebazpenaren ondorioz, AS/G/14475/2009 erregistro zenbakiarekin.

Que la entidad ASOCIACIÓN "JUNE" JUNIOR EMPRESA de DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA), figura inscrita en el Registro General de Asociaciones del País Vasco en virtud de Resolución dictada en fecha 16 de junio de 2009, con el número de Registro AS/G/14475/2009.

Erregistro honetan jasotzen den azkenengo Zuzendaritza Batzordea 2013(e)ko urriaren 11(e)ko datarekin inskribatu zen, eta honakoa da:

Que la última Junta Directiva inscrita en este Registro con fecha 11 de octubre de 2013 es la siguiente:

LEHENDAKARIA / PRESIDENTE/A : Virginia Irigoyen Vegas
LEHENDAKARIORDEA / VICEPRESIDENTE/A : Iñigo Romero Garmendia
IDAZKARIA / SECRETARIO/A : Patricia Álvarez Suárez
DIRUZAINA / TESORERO/A : Alberto Faustino Muatetema Buitang
BATZORDEKIDEA / VOCAL : Sofia Skirej
BATZORDEKIDEA / VOCAL : Mario Mateo Lorente
BATZORDEKIDEA / VOCAL : Iker González González

Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 28(e)(a)n.
En Vitoria-Gasteiz, a 28 de junio de 2016.

ELKARTEEN ERREGISTROA / REGISTRO DE ASOCIACIONES



Nahiz izanez gero, J000Z-T00ES-7YFA bilagatua erabiliz, dokumentu hau egiaztatzen da eta ez jakin liteke egiaztatu elektronikoki honetan: <http://euskadi.eus/focalizador>
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J000Z-T00ES-7YFA en la sede electrónica <http://euskadi.eus/focalizador>

4. ERANSKINA: Hautazko kredituen taula.

ARAUTEGIAREN LABURPENA: GRADUKO IKASKETETAN HAUTAZKO KREDITUAK LORTZEA LANEKO ESPERIENTZIAGATIK, ESPERIENTZIA PROFESIONALAGATIK, KANPOKO PRAKTIKENGATIK, KULTURA ETA KIROL JARDUERENGATIK, IKASLEEN ORDEZKARI IZATEAGATIK EDO BOLUNTARIO ARITZEAGATIK ETA LANKIDETZA JARDUERENGATIK

BALDINTZA ETA IRIZPIDE OROKORRAK

- Hautazko kredituak eskatzeko, gaindituta izan behar da osorik lehenengo maila eta nahitaezko 48 kreditu, hau da: 108 kreditu.
- Gomendagarria da hautazko kredituetarako eskariak multzoka aurkeztea, 6 kredituko multzoetan, horixe baita irakasgai baten baliokide
- Kanpoko praktika eta laneko esperientziaren bidez 6 kreditu lortzerik izan ezean, beste jarduera batzuen bidez osatu ahal izango dira.
- GEHIENEZ 6 KREDITU kultura eta kirol arloko jarduerengatik, ikasleen ordezkari izateagatik eta boluntario aritzeagatik eta lankidetzaz jarduerengatik.

A	KULTURA JARDUERAK (IKASTAROAK, MINTEGIAK...)	Gehienez 3 kreditu ikasturte bakoitzeko	Aurkeztu beharreko agiriak
	Fakultateak antolatutako jarduerak	1,0 kreditu 25 orduko	Fakultateko idazkariaren ziurtagiria
	Sailak antolatutako jarduerak	1,0 kreditu 25 orduko	Fakultateko idazkariaren ziurtagiria
	Errektoreordetzak egindako jarduerak	1,0 kreditu 25 orduko	Kasuan kasuko errektoreordetzaren ziurtagiria
	Udako ikastaroak	1,0 kreditu 25 orduko (UPV/EHUkoak) 1,0 kreditu 50 orduko (beste unibertsitateak)	Kasuan kasuko unibertsitateko udako ikastaroen bulegoko ziurtagiria
B	IKASLEEN ORDEZKARITZA	Gehienez 3 kreditu ikasturte bakoitzeko	
	Gobernu Kontseilua, Gizarte Kontseilua, Klaustroa	1,5 kreditu ikasturte bakoitzeko	Idazkaritza Nagusiko ziurtagiria
	Ikastegiko batzarra edo batzordea	1,0 kreditu ikasturte bakoitzeko	Fakultateko idazkariaren ziurtagiria
	Saileko kontseilua	1,0 kreditu ikasturte bakoitzeko	Saileko idazkariaren ziurtagiria
	Taldeko ordezkaria	1,0 kreditu (ikasturte bakoitzeko)	Fakultateko idazkariaren ziurtagiria
C	BOLUNTARIO ARITZEA EDO LANKIDETZA JARDUERAK	Gehienez 3 kreditu ikasturte bakoitzeko	
	Boluntario edo lankidetzaz jarduerak	1,0 kreditu 30 orduko	Garapenerako Lankidetzaz Bulegoaren ziurtagiria
	Ezintasunen bat daukaten ikasleei laguntzea	1,0 kreditu 30 orduko	Ikasleen Errektoreordetzaren ziurtagiria
	Ikasle sartu berriei laguntza ematea eta tutoretza egitea	1,0 kreditu Cicerone programan	Ikasleen Errektoreordetzaren ziurtagiria edo Fakultateko idazkariaren ziurtagiria
D	KIROL JARDUERAK	Gehienez 3 kreditu ikasturte bakoitzeko	
	Prestakuntza ikastaroak, lehiaketak...	Ikusi arautegiaren II. eranskina	Kirol Zerbitzuaren ziurtagiria
F	PRAKTIKAK ENPRESETAN - LANEKO ESPERIENTZIA		
	Kanpoko praktikak (gehienez 18 kreditu)	1,0 kreditu 25 orduko	Fakultateko praktiketako ziurtagiria
	Laneko esperientzia eta esperientzia profesionala (gehienez 6 k.)	1,0 kreditu lanaldi osoan egindako 90 eguneko	Akademia Antolakuntzako Batzordearen ziurtagiria

Hautazko kredituetarako eskariak aurkezteko epea: **urriaren 1etik ekainaren 30era**#